



*“Izan zirelako gara.
Bagara, izango dira”*

(2002ko urtarrilaren 22a)

Egitasmo hau idazten esku hartu dutenak:

AMONDARAIN Antton
AURREKOETXEA Manu
ALDASORO Mikele
ELORZA Itziar
ETXEZARRETA J. Iñaki
GARAGORRI Xabier
HERNANDEZ Loli
LEKUONA Iñaki
OSA Erramun
SOROA Nagore
URIARTE J. Andoni

I.- SARRERA

II.- EGITASMOAREN HELBURUAK

III.- ZER DA HIZKUNTZ PROIEKTUA?

- 1.-Definizioa
- 2.-Ezaugarri nagusiak
- 3.-Ezaugarri baldintzatzaileak
 - 3.1.-Lege arauak
 - 3.2.-Ingurunearen ezaugarriak
 - 3.3.-Ikastola tipologia
 - 3.4.-Ikastola mugimenduaren ezaugarriak

IV.- IKASTOLEN IZAERA eta HELBURUEI DAGOKIEN HIZKUNTZ eta HEZKUNTZA POLITIKARAKO OINARRIAK.

- 1.- Euskararen eta euskarazko irakaskuntza indartu
- 2.- Etorkinak integratzeko berariazko bideak asmatu
- 3.- Euskararen kalitatea zaindu eta eredu ona erakutsi
- 4.- Euskararen erabilera elikatu
- 5.- Euskara eta euskal kultura ardatzak izanik, kulturantzatasuneko eta eleaniztasuneko planteamenduak indartu eta hedatu
- 6.- Eskolaren eginkizuna kontuan hartuz, bestelako gizarte eragileekiko lankidetzarako oinarriak jarri

V.- HIZKUNTZA, KULTURA eta METODOLOGIA IKUSPEGIAREN OINARRIAK

- 1.- Hizkuntzari buruzko ikuspegia
- 2.- Hizkuntzak eta kultura transmisioa
- 3.- Hizkuntzari buruzko ikuspegi metodologikoa
 - 3.1.-Komunikazioaren inguruan, hausnarketa
 - 3.2.-Tarteko hizkuntza
 - 3.3.-Testu pedagogia
- 4.- Hizkuntz arloko *curriculum* integratua
 - 4.1.-Hizkuntz arloko *curriculum* diseinua
 - 4.2.-Hizkuntzen ikusmolde integratzailea
- 5.- Hizkuntzaren zeharkakotasuna
 - 5.1.-Eskola hizkuntza; hizkuntza akademikoaren lanketa
 - 5.2.-Gelaz kanpoko komunikazio eremuei erantzuna

VI.- IKASTOLA BAKOITZAK HIZKUNTZ PROIEKTUA DEFINITZEKO GIDA

- 1.-Hizkuntzekiko esku hartze eremuak
- 2.-Hizkuntzen erabilera eta trataeren diagnostikoa
- 3.-Beharrak antzematea eta lan estrategiak definitzea
 - 3.1.-Eremu pedagogikoa
 - 3.2.-Eremu instituzionala
- 4.-Ikastola: egiturak, baldintzak eta zereginak

VII.- EGITASMOA HEZURMAMITZEKO PLANA

- 1.-Egitasmoaren antolaketa
- 2.-Egitasmoaren faseak
- 3.-Arduren banaketa
- 4.-Faseen kronograma
- 5.-Egitasmoaren aurrekontua

VIII.- BIBLIOGRAFIA

I.-SARRERA

Ikastolen sorreraren zergati nagusietakoak euskararen berreskuratze eta garapen prozesuari erantzutea izan dira, hartara, ikastolen ibilbidea eta euskararen zabalkundea estu-estu loturik azaldu ohi dira. Hezkuntza euskalduna eta kalitatezkoa erdietsi nahian, euskara irakastea, euskaraz ezagutza eraikitzea eta euskaldun sena heztea izan dira, besteak beste, euskal gizarteak lagunduta, ikastoletan bildu den hezkuntza-komunitatearen sorguneko ardura nagusiak.

Era berean, euskal lurralde orotan, iparraldean zein hegoaldean, euskararen eta euskarazko irakaskuntzak, frantsesari eta gaztelaniari ikastolako eguneroko jardunbidean zer nolako lekua eman aztergai izan ditu, bada, zein adinetan hasi hizkuntza batean ala bestean? Zenbat denboraz? Zein arlotan? Bezalakoak hamaika eztabaidatuko auzi izan dira ikastoletako bileretan.

Hegoaldeko euskal lurraldeek indar arauemailea eskuratu duten heinean, 1980. urtetik aurrera, irakaskuntzan gaztelaniak eta euskarak hartu beharreko tokia arautu egin dute bertako legebiltzarrek (EAEkoak lehenik, eta Nafarroakoak ostean), gaur egun indarrean dauden A, B eta D hizkuntz ereduak sortuz. Iparraldean, aldiz, frantsesa hizkuntza ofiziala bakarria denez, euskal irakaskuntza arautu gabe dago, eta, ikastolek egunero gauzatzen duten praxian du erreferentzia nagusizat.

Bada, ordea, pasa berri den mendeko 90eko hamarkadan gertaturiko fenomeno berria, eta horren kariaz, Europako testuinguruan nagusi izan diren aldaketa politikoei eta administratiboek eragindako beharrian sozial berrien artean, eleaniztasunean hezitako europar belaunaldi berriena nabari daiteke; ingurumari horretan, ikastoletan ingelesaren ikaste goiztiarra zabaldu da. Fenomeno horri erantzuteko, besteak beste, ikastolek pedagogi egitasmoa berritu eta geure erantzuna eman diogu, eleaniztasun proiektu berritzailea diseinatuz eta abian jarritz.

Halaber, 90eko hamarkadak aurrera egin ahala, ikastoletan laugarren hizkuntza eskuratzeko ahalegina hedatu eta indartu da. Bada, euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta alemana ikastoletako ikas-irakaspen prozesuetan planteatzeak eta Euskaraz Bizi eta antzeko egitasmoen eraginez, batik bat, bestelako buruhausteak eta beharrak mahaigaineratu dizkio ikastolen mugimenduari: pedagogi berrikuntza, material sorkuntza, hizkuntzen erabilera eremuak zehaztu beharra, profesionalen prestakuntza, hizkuntzaren kalitatea jagon beharra zein euskararen erabilera ikasgelan, eskola-espazioan, hezkuntza-komunitatearen bileretan, kalean, eta abar indartzeko asmoz hitzunen jarreretan modu iraunkor eta eutsigarrian eragin beharra.

Kezka handi horien baitan dauden gakoak, agerikoak zein ezkutukoak, aztergai izan ditu Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen baitako lantalde batek (J.A. Uriarte, I. Elorza, M. Aldasoro, I. Lekuona, A. Amondarain, L. Hernandez eta M. Aurrekoetxea lankideek osaturik), eta duela hiru urte (1999ko urtarrilean) hasi eta gaur arte jardun du, Ikastolen Hizkuntz Proiektua izan daitekeen eztabaidarako dokumentua EHIERi aurkeztuz.

EHIEko zuzendaritzak, lantaldeak eginiko dokumentua abiapuntutzat hartuz, eta 2002-2007 ikasterterako ikastolek onetsi dituzten plan estrategikoak –Plan Integrala izeneko dokumentuan bildu direnak– kontuan izanez, 2002ko urtarrilaren 22an, Donostian, egindako Zuzendaritza Taldean, ondorengo orrialdeotan jaso den Egitasmoa garabidean jartzea erabaki du.

II.-EGITASMOAREN HELBURUAK

1. HELBURUA: Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen hizkuntz proiektua definitzea.

Emaiza-adierazleak:

- ▶ Ikastola hezkuntza-ereduari egokitu.
- ▶ Honi dagokion heziketa euskalduna definitu.
- ▶ Heziketa eleaniztunari erantzun.
- ▶ Euskarazko eta euskararen irakaskuntza ardatz nagusia izan.
- ▶ Euskararen aldaeren trataera.
- ▶ Euskararen jakite-mailaren hobekuntza, oro har, eta profesionalena bereziki, landu.
- ▶ Derrigorrezko Hezkuntzaren bukaerako hizkuntz helburuak seinatu.
- ▶ Etapa eta ziklo bakoitzeko hizkuntzen denbora banaketa proposatu.
- ▶ Hizkuntzen eta ezagutza-arloen arteko lotura zehaztu.
- ▶ *Curriculum*a eta hizkuntzen arteko joan etorriak zehaztu.
- ▶ Hizkuntzen irakaspenerako metodologiarik eguneratuena eskaini.
- ▶ Ikastolen ikasmaterialgintzan egin beharreko hobekuntzak identifikatu.
- ▶ Gurasoen eta profesionalen prestakuntzan egin beharreko hobekuntzak identifikatu.
- ▶ Ebaluazio jardueretan egin beharreko planteamenduak seinatu.
- ▶ Euskaraz Bizi proiektuaren berrikuntzaren norabideak ezarri eta materialak sortzeko plangintza eratu.
- ▶ EHIEk eraketan eta kanpo harremanetan hizkuntz plangintza proposatu.
- ▶ Hezkuntza komunitatean euskararen erabilera indartu.

Xedea lortzeko prozesuaren adierazleak:

- ▶ Ikastoletan definituko diren hizkuntz proiektuetan eragin.
- ▶ Ikastolek definitutako hizkuntz proiektuen edukia kontraste gisa baliatu.
- ▶ EHIE osatzen duten federazioetako pedagogi arduradunekin kontrastea egin.
- ▶ Kanpoko auditoria egin.
- ▶ EHIERen bibliografia eta dokumentazioa landu.
- ▶ Ikastola hezkuntza-ereduari egokituriko bibliografia zientifikoa landu.

2. HELBURUA: Ikastola bakoitzaren hizkuntz proiektua definitzen laguntzea.

Eraitza-adierazleak:

- ▶ EHIEren hizkuntz proiektuaren erreferentzia-eredua eskaini.
- ▶ Ikastola bakoitzak duen hezkuntza-proiektuari egokitzera bideratu.
- ▶ EHIEren hizkuntz proiektuaren atal guztiak lantzea azpimarratu.
- ▶ Bost ikastolaren hizkuntz proiektuak eginda izan.

Xedea lortzeko prozesuaren adierazleak:

- ▶ Ikastoletako lehendakariaren eta zuzendaritzaren lan konpromisoa lortu.
- ▶ Ikastolek definitutako hizkuntz proiektuen edukia kontrastatu.
- ▶ Lurralde guztietako ikastola talde bat lanean jarri.
- ▶ Lurralde guztietako federazioen lankidetzaz jardun.


III.-ZER DA IKASTOLEN HIZKUNTZ PROIEKTUA?

1.-Definizioa

Nork bere errealitatearen eta kokaturik dagoen testuinguru sozio-ekonomiko-linguistiko eta kulturalari egokituriko heziketa jarduera modu koherentean islatzeko asmoz, Ikastola bezala definitzen gaituzten ezaugarri bereizgarriak adostu eta **Ikastolen Hezkuntza Proiektuan (IHP)** finkatu dira. Bertan, ikastola guztiok guretu ditugun ezaugarriak (nor garen), gure heziketa helburu komunak (zer nahi dugun), *curriculum*aren euskal dimentsioa, antolaketa-egituraren ardatz nagusiak, eta gainerako guztiak jasoko dira.

Erreferentziazko dokumentu horretan oinarrituz eta nork bere errealitatearen eta kokatuta dagoen testuinguruaren analisiaren emaitzak kontuan izanik, burutu ahal izan du ikastola bakoitzak bere autonomia pedagogikoa artikulatzen duen Ikastolako Hezkuntza Proiektua.

Baina, Ikastolen Hezkuntza Proiektuan finkatutako hainbat heziketa-helburu gauzatzeko, EHIEen oro har, nola baita, ikastola bakoitzean bada horrekin lotura estua edukiko duen beste dokumentu garrantzizko baten beharra: **ikastolan lantzen diren hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bilduko dituen eta haien trataerari koherentzia emango dion HIZKUNTZ PROIEKTUA**. Halaber, Hizkuntz Proiektuak, Hezkuntza Proiektuarekin ez ezik, *Curriculum* Proiektuarekin ere lotura estua izango du (ik. 1. irudia), eta bertan bildutako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastolako beste dokumentuetan ere: barne araudian, urteko plangintzan, barruko eta kanpoko harremanak arautzen dituzten printzipioetan eta abarretan, dokumentu horietan, besteak beste, bideratzen baitira Hizkuntz Proiektuan adostutako printzipioen gauzatzea.



1. irudia

Hizkuntz Proiektuan hauek jasoko dira:

- A-** Ikastola txertatuta dagoen komunitatean euskararen normalizazio prozesuan eragile izanik, ahalik eta toki gehienetan euskara egoki eta zuzen erabiltzeko, hedatzeko eta haren aldeko jarrera indartzeko hartu beharreko erabakiak gidatuko dituzten oinarriko irizpideak.
- Euskara komunikatzeko tresna eragingarria eta nagusia izatea edozein arlotan ikasketak egiteko.
 - Euskararen aldaeren trataera.
- B-** Hizkuntzen irakas-ikaskuntza prozesua lekuan lekuko errealitate soziolinguistikoari eta norbanakoaren egoerari egokitzeko irizpide orokorrak.
- Euskararen irakas-ikaskuntza prozesua eta horren trataera.
 - Gaztelaniaren nahiz frantsesaren irakas-ikaskuntza prozesua eta horien trataera.
 - Atzerriko beste hizkuntzen irakas-ikaskuntza prozesua eta horien trataera.
- C-** Horrek guztiak ikastola bakoitzari eskatuko dio:
- Ikastolan erabili eta lantzen diren hizkuntzen trataera orokorra zehaztea, hizkuntza bakoitzaren lehentasun, identitate, funtzio eta esparruak bereiziz.
 - Ikastolak euskararen normalkuntza prozesua bideratzeko, erakundea osatzen duten estamentuen helburu, jarduera eta estrategiak zehaztea.
 - Ikastolan lantzen diren hizkuntzak era koherentean garatuko dituen hizkuntz curriculumaren marko integratu baten sorkuntza.
 - Hori guztia lortzeko, metodologia eta estrategien ezarpenerako proiektu globalizatu eta eragingarria eratzea, zeinak euskararen erabileraren aldeko erakarpen eta motibazio jarrera eta portaerak bultzatuko dituen.

2.-Ezaugarri nagusiak

Hizkuntz Proiektua Ikastolek kolektibo gisa duten hizkuntza eta euskal kulturarekiko funtsezko nortasunaren ezaugarri biltzailea izango da. Bertan, ikastolak berak definiturik daukan Hezkuntza Proiektuarekiko eta euskal curriculum propioarekiko koherentzia islatuko da. Hezkuntza Proiektuarekin lotura zuzena duenez, antzeko ezaugarriak izango ditu:

- **Legezketasuna:** ikastola kokaturik dagoen Lurraldeari (EAE, Nafarroa eta Iparraldea) dagokion Hezkuntza Sistemak zehazten duen hizkuntzekiko marko legislatiboa kontuan hartuko du Hizkuntz proiektuak, eta proiektua koherentziaz gauzatzeko beharrezkoak izan daitezkeen egokitzapenak egingo ditu.
- **Egonkortasuna:** ikasleen ikas-irakaskuntza prozesuaren jarraitasuna ezerk eragotzi ez dezan, Proiektuan jasotako printzipio eta edukiek gutxieneko iraupena bermatu behar dute.
- **Koherentzia:** ikastola bakoitzak Hezkuntza Proiektuan definitutako izaera eta helburuekiko egokitasuna izango du, eta, aldi berean, kokaturik dagoen inguruneke errealitate soziolinguistikoari eta onartutako ardatz metodologikoari egokituko zaie.
- **Integrala eta bateratzailea:** Hizkuntz Proiektuak ikastola osatzen duen hezkuntza komunitate osoan du eragina, azken batean, berau osatzen dutenen partaidetzaren eta inplikazioaren arabera gauzatu baitira dokumentuan formulatutako irizpideak. Bertan, jasotako erabakiek hezkuntza komunitateko kide guztiak konprometituko dituzte.
- **Parte-hartzailea eta indar biltzailea:** pertsonen eta estamentuen parte-hartze zabala bideratuz eta kide guztien eta jarduera ororen arteko indar biltzaile izanez, integral eta, gainera, hizkuntza eragile dinamikoa izan behar dute ikastolako bizitzan Hizkuntz Proiektuan datozen printzipioek eta horietatik eratorritako ekimenek.

3.-Ezaugarri baldintzatzaileak

Atal honetan, hizkuntzen trataera baldintzatzen duten ezaugarrien identifikazioa egiteko alderdi lagungarriak aipatuko ditugu. Lau azpi-atal hartu dira kontuan:

- Lege arauak (Konstituzioak, hezkuntza antolaketa eta hizkuntza politikan eragina daukaten lege eta bestelako neurriak, Autonomia Estatutua, Nafarroako Foru-Jaurpidearen hobetzeari buruzkoa, e.a.)
- Ingurunearen (lurraldea, herria edo auzoa) egoera sozio-ekonomikoa eta kulturala (ikasleen ohiko ama-hizkuntza, ingurunearen hizkuntza normalizazio egoera, e.a.)
- Eskola tipologia (titulartasuna, mailak, kokapen geografikoa, e.a.).
- Ikastolaren izaera, egitura eta funtzionamendu adierazleak (irakasle-ikasle ratioa, komunikazio sistemak, ikastolaren izaera, kultura eta estiloa, hezkuntza komunitatean gurasoen esku hartzea, irakasleen gaitasun eta motibazioa, e.a.)

Bada, azpi-atal bakoitza gara dezagun:

3.1.-Lege arauak:

Hizkuntz eta hezkuntza plangintza baldintzatzen duten oinarri juridikoen erreferentziak aipatuko ditugu.

3.1.1.-Nazioarteko markoa

- Nazioarteko Giza Eskubideen Agiria (Nazio Batuak, 1948ko abenduak 10).
- Europako Kontseiluak 1950ean hartu Erabakia: “Giza-eskubideak eta oinarritzko askatasunak babesteko Europako Ituna”.
- Europako Parlamentuaren Erabakia irakaskuntzaren askatasunari buruz, 1984eko martxoaren 14koa (Doc. n. 1. , 1456-83), Espainiako eta Portugalgo Gobernuari zuzendua, non defendatzen baita pertsonen eta herrien eskubidea beren hizkuntzan irakasteko.
- Europako Parlamentuaren 1988ko urriaren 28ko Erabakia Europako Elkartean komunitateko hizkuntzen irakaskuntzari buruzkoa (DOCE-C 309, 1988/12/5, 427 or.).
- Europako Kontseiluaren Erabakia, 1992ko azaroaren 5koa, Eskualde eta Gutxiagotutako Hizkuntzei buruzko Eurokarta. Eurokarta 1998ko martxoaren 1ean, bost estaturen sinadura jaso ondoren, indarrean jarri zen. Eurokarta 15 estatuk berretsi dute (horien artean Espainiak), eta, beste hamabik sinatu dute (horien artean Frantziak).
- Europako Kontseiluaren Erabakia, 1995eko martxoaren 31koa, Europako Elkarteko hezkuntza sistemetan hizkuntzen eskuratze eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzeari eta abartzeari buruzkoa (DOCE-C 207, 1995/8/12, 1-5 or.).
- Europako Kontseiluaren Erabakia, 1997ko abenduaren 16koa, Europako Elkarteko hizkuntzen irakaste goiztiarrari buruzkoa (DOCE-C 1, 1998/1/3, 2. or.).
- Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 1934/2000/CE Erabakia, 2000ko uztailaren 17koa, non 2001 urtea Hizkuntzen urte Europarra ezartzen den (DOCE-L 232, 2000/9/14, 1 or.).
- Kontseiluaren eskariz propio sortutako Konbentzioak idatzitako “Europar Batasuneko oinarritzko eskubideen Araua”, zeina Europako Legebiltzarraren, Kontseiluaren eta Batzordearen presidentek sinatu eta aldarrikatu zuten Nizan, 2000ko abenduaren 7an. Bertan, Europako Batasunean lehen aldiz, Batasunean bizi diren herritarren eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak eta sozialak jasotzen dira.
- Batasunaren kontsultarako organoa den Eskualdeen Batzordearen Erabakia, 2001.eko ekainaren 13koa: “Lurraldeetako eta Eremu urriko Hizkuntzen Sustapen eta Babeserako Erabakia”.

3.1.2.-Espainiar Estatuko markoa

- Espainiako Konstituzioa, 1978. Art. 3; 148.1.17; Konstituzioaren Hitzaurrea.
- Haur Hezkuntza (1333/1991 Errege Dekretua, irailaren 6koa, B.O.E. 9.9.91).
- Lehen Hezkuntza (1344/1991 Errege Dekretua, irailaren 6koa, B.O.E. 13.9.91).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (1345/1991 Errege Dekretua, irailaren 6koa, B.O.E. 13.9.91).

3.1.3.-Frantziako markoa

- 1901eko uztailaren 1a, Asoziazio-Legea.
- Frantziako Konstituzioa, 1958, 2. art.
- Bigarren Maila (1959/12/31ko Dekretua), DEBRÉ Legea
- Haur eta Lehen Hezkuntza (1995/2/22ko Dekretua)

3.1.4.-Iparraldeko Markoa

- 1994ko uztailaren 21ean Seaska eta Hezkuntza Ministerioren artean, Debré Legearen baitan, sinatutako Elkarte Kontratua.

3.1.5.-Euskal Autonomia Erkidegoko markoa

- Gernikako Estatutua, 1979. Art. 6, 16.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilpenaren normalizazioari buruz.
- 138/1983 Dekretua, uztailaren 11koa, Hezkuntza eta Kultura Sailarena, zeinaren bitartez erregulatu baita hizkuntza ofizialen erabilpena Euskal Herriko irakaskuntza ez-unibertsitarioan.
- Hezkuntza eta Kultura Sailaren Agindua, 1983ko abuztuaren 1ekoa, zeinaren bitartez erregulatu baita hizkuntza ofizialen erabilpena EAEko irakaskuntza ez-unibertsitarioan.
- Eskola Publikoari Buruzko 1993ko legea
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) zeinean euskara biziberritzeko eremu estrategikoak kontuan xede eta lehentasunak finkatzen dituen. 1999ko abenduaren 10ean Eusko Legebiltzarrak onetsia

3.1.6.-Nafarroako markoa

- 13/1982 Legea, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru-Jaurpidearen berreskuratze eta hobetzeari buruzkoa.
- 18/1986 Euskararen Foru Legea, abenduaren 15ekoa.
- Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan, Eskolaurrean eta OHOn euskara sartzea eta erabiltzea erregulatuko duen Foru Dekretua (B.O.N. 108, 1988-IX-5).
- 1988ko azaroaren 3ko Foru Agindua, zeinaren bitartez onartzen baitira euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren oinarrizko egitarauak (B.O.N. 139, 1988-XI-16).

3.2.-Ingurunearen ezaugarriak

☒ Ingurune hurbila:

Eremu honetan euskararen erabileran eragina eduki dezaketen hiru faktore aztertu behar dira:

- Kokalekua: ingurunearen ezaugarri fisiko-geografikoak, sozio-ekonomikoak, kulturalak eta soziolinguistikoak.
- Euskaldunen dentsitatea:
 - Ingurune orokorrean (herria, auzoa, etab.).
 - Ikaslearen familiaren harreman sarean (lagunartea, etab.).
- Euskararekiko interesa eta jarrera. Motibazio elementu hurbilak (afektiboak, lanekoak, etab.). Euskararen aldeko jarrera baikorrak eragin handia du euskararen erabileran.

☒ Familia:

Familia bera da hizkuntza transmititzeko biderik garrantzitsuena. Era berean, familiako hizkuntza da sentimenduen eta norberak barneratzen duen mundu sinbolikoaren transmisio bidea.

Ondorioz, ikasleen hizkuntz garapena bideratzeko, helburu eta estrategiak finkatzerakoan, hizkuntzaren ezagutzaren eta horrekiko jarreraren eta joeraren arabera familia tipologiak hartu beharko dira kontuan:

- Familia euskalduna:
 - Gurasoek eta seme-alabek euskara ondo jakin eta erabiltzen dute.
 - Jakin arren, erabiltzeko joerarik ez dute.
- Familia elebiduna: gurasoetako batek soilik daki eta erabiltzen du euskara.
- Familia erdalduna: guraso erdaldunek osatzen dute. Familiako hizkuntza erdara da.
 - Gaztelania edo/eta frantsesa.
 - Migrazioaren bitartez bertaratutako bestelako hizkuntzak: txinera, arabiera, etab.

3.3.-Ikastola tipologia

☒ Ikastolaren ezaugarri administratiboak eta baliabide material zein ekonomikoak

- Titulartasuna. Ikastolaren izaeraren kudeaketa eta garapena bideratzen duen gaitasun juridiko-administratiboa.
- Hezkuntza tipologia (mailak, etapak, espezialitateak, kokapen soziogeografikoa, ...)
- Azpiegitura. Ikastolaren elementu fisikoak eta haien ezaugarriak.
- Baliabide ekonomiko eta materialak.

☒ **Ikastolaren funtzionamendua eta egitura**

- Kontsultarako organoak eta organo erabakitzaileak (pertsonek bakarrekoak eta kolegiatuak), horien osaketa eta uztardurak.
- Organo bakoitzaren funtzioak eta ardurak, eta horiek gauzatzeko estrategiak eta arauak.

3.4.-Ikastola mugimenduaren ezaugarriak

Ikastolen Hizkuntz Proiektua definitu ahal izateko, ikastolaren nortasunaren adierazgarrien artean badira zuzenean hizkuntzarekin lotuta azaltzen direnak, hartara, Hizkuntz Proiektuaren eraikuntzan ezinbesteko ardatz izango direnak. Ondorengoak dira:

☒ **Ikastolen funtsezko nortasunaren adierazleak**

Honen inguruan hartu izan ditugun zenbait erabaki dakargu:

- 1.1. Eskola-entitatea da ikastola, euskal gizarteak hezkuntzan ipintzen dituen ideien eta itxaropenen adierazpenetako bat.
- 1.2. Entitate euskalduna da Ikastola, euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen, normalizazio eta potentziazioarekin guztiz konprometitua, euskalduntasunetik kultura unibertsalera zabaltzen delarik.” (*Pedagogi Plan Nazionala. Ikastolen III. Batzarra (1997), in Ikastola aldizkaria, 62. zenbakia, 8. orrialdea. Pasarte hau Ikastolen Hezkuntza Proiektutik hartu zen*)

☒ **Ikastolaren helburu orokorrak**

Honen inguruan hartu izan ditugun zenbait erabaki dakargu:

- “Euskal Eskolaren lehentasunezko helburu linguistikoa euskara izanik, baina, era berean, harreman pertsonal, sozial eta profesionalak Euskal Herriko mugak gero eta gehiago gaintzen dituen Europako Elkartearen esparru barruan izango ditugula kontuan hartuz, Europako beste hizkuntzen ezaguerak eta erabilpenak ere Euskal Eskolaren helburu linguistiko izan behar dute” (In *Euskal Eskola (1991), Ikastolen Elkartea, 28. orrialdea*)
- “2.2. Ikastolak bere ikasleak formazio euskaldunaz hezi nahi ditu: euskara ongi menderatuz, euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta potentziazioarekin konprometitua, eta Euskal Herriko errealitate lurraldetar, historiko, sozial, politiko eta kulturalarekiko barnekide.” (*Pedagogi Plan Nazionala. Ikastolen III. Batzarra (1997), in Ikastola aldizkaria, 62. zenbakia, 8. orrialdea*). Halaber, Nafarroaren kasuan “euskara ongi menderatuz” tarteari “euskara erabiliz eta ongi menderatuz” aldaketa erantsita, aipamen bera, 2001eko uztailaren 23an Lan-Talde nazionalak onetsitako *Ikastolen Plan Integrala 2002-2007* dokumentuaren 10. orrialdean aurki daiteke.

Erabaki multzo hori, helburu gisa, honela formulatuko genuke:

- Ikastolak hezkuntza eta hizkuntz proiektuaren ardatzat euskara izanik pertsona eleaniztunak formatu nahi ditu, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea bideratuz. Hots, bertako hizkuntza propioa eta kontaktuko hizkuntzez gain (gaztelania eta frantsesa), atzerriko hizkuntza batean nahikotasun maila erdietsiz erabili ahal izatea lortu nahi du.

Halaber, erabaki multzo horri beste bi erabaki gehituko genizkioke:

- Ikastolak txertatuta dagoen komunitatean euskararen normalizazio prozesuan eragile izan nahi du. Hartara, bestelako gizarte eragile zein askotariko instituzioekin lankidetzan jarduteko borondatea du.
- Era berean, Ikastolak bere hezkuntza komunitatearen barne bizitza euskaraz gauzatu nahi du, mota guztietako harremanetan, eta, horretarako sortutako bitartekoetan, euskararen eta euskal kulturaren transmisioa, garapena eta zabalkundea ziurtatu nahi ditu.

☒ **Ikastolaren helburu zehatzak (ik. 1. eranskina-2. irudia)**

A.-Helburu pedagogikoak

- A.1. Ikasleari begirakoak:

1. Euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez (bakoitza bere lurralde eremuan) ahozko zein idatzizko mezuak autonomiaz eta sormenez ulertu eta ekoitzi. Ingurumari horretan, kode artistiko, zientifiko eta teknikoak dituzten mezuak interpretatu eta sortu, komunikazioan duten zeregina balioetsi eta erabileran inplikaturako prozesuei buruzko gogoeta egin.
2. Euskal Herriko hizkuntza propioa ahalik eta eremu gehienetan erabiltzeko konpromisoa azaldu eta gure kultur ondarea ezagutu, estimatu eta hori defenditzen, kontserbatzen eta hobetzen lagundu.
3. Hirugarren hizkuntzari dagokionez, oinarrizko komunikazio esparruetan gertatzen diren ohiko egoeretan ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertu eta ekoitzi.
4. Laugarren hizkuntzari dagokionez, eguneroko kontestu ezagunetan eta gai orokor eta arruntei buruzko ahozko nahiz idatzizko mezu sinpleak ulertu eta ekoitzi.
5. Herriaren eta norbanakoen eskubidetzat eduki eta onartu hizkuntza eta kultur aniztasuna, eta eskubide horretaz baliatzerakoan errespetuzko eta konpromisozko jokabidea agertu, eta aniztasun hori dela-eta sor litekeen edozein diskriminazio arbuia eta ekiditen ahalegindu.

- A.2. Kudeaketa pedagogikoari begirakoak:

1. Euskara ardatz izanik eleaniztasun egitasmo uztartua zehaztu eta garabidean jarri.
2. Eleaniztasun egitasmo uztartua garatu ahal izateko EHIEn nola ikastolen antolaketa aldetik egin beharreko aldaketak aurreikusi eta eraldatzea bultzatu.
3. Euskara ardatz izanik eleaniztasun egitasmo orekatua garabidean jartzeko bitartekoak aurreikusi eta esleitu.
4. Euskal *curriculum* integratua sortzeko urratsak egin.

B.-Helburu instituzionalak

- B.1.-Antolaketa mailakoak

1. Ikastolako gobernu eta funtzionamendu organoetan gauzatzen diren harremanetan euskararen nagusitasuna indartu eta bideratu.
2. Langile irakasle eta irakasle ez denaren hizkuntz profil egokiak bideratu.
3. Ikastolako giroa euskalduna izateko neurri egokiak hartu.
4. Ikastolako dokumentazioan erabilitako euskara gaurkotu eta egoki eta zuzen idazten saiatu.

- B.2.-Interakzio mailakoak

1. Irakasleen arteko hizkuntz harremanak arautu.
2. Ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezen ahalegindu.
3. Familiak ikastolakoekin eta etxekoekin harremanak euskaraz izan ditzaten saiatu.
4. Euskaldunak ez diren familietan euskararekiko zaletasuna eta errespetua landu.
5. Administrazioako erakundeekin izaten diren harremanetan ahalik eta euskara gehien erabili, alegia euskararen nagusitasuna sendotu.
6. Ikastolen eta bestelako eragileen arteko askotariko harremanetarako hizkuntz irizpideak ezarri.
7. Euskararen normalizazioaren alde ari diren erakundeekin elkarlanerako harreman sistematikoak ezarri.
8. Euskal ekimen kulturalak sortu eta herritarren artean zabaltu, eta beste erakunde sozialek proposatutakoetan parte hartu.



HELURU OROKORRAK

1. Ikastolak hezkuntza eta hizkuntza proiektuaren ardatzat euskara izanik pertsona eleaniztunak formatu nahi ditu, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea bideratuz. Hots, bertako hizkuntza propioa eta kontaktuko hizkuntzez gain (gaztelania eta frantsesa), atzerriko hizkuntza batean nahikotasun maila erdietsiz erabili ahal izatea lortu nahi du.
2. Ikastolak txertatuta dagoen komunitatean euskararen normalizazio prozesuan eragile izan nahi du. Hartara, bestelako gizarte eragile zein askotariko instituzioekin lankidetzan jarduteko borondatea du.
3. Era berean, Ikastolak bere hezkuntza komunitatearen barne bizitza euskaraz gauzatu nahi du, mota guztietako harremanetan, eta, horretarako sortutako bitartekoetan, euskararen eta euskal kulturaren transmisioa, garapena eta zabalkundea ziurtatu nahi ditu.

PEDAGOGIKOAK

HELURU ZEHATZAK

INSTITUZIONALAK

1. Euskara ardatz izanik eleaniztasun egitasmo uztartua zehaztu eta garabidean jarri.
2. Eleaniztasun egitasmo uztartua garatu ahal izateko EHIEn nola ikastolen antolaketa aldetik egin beharreko aldaketak aurreikusi eta eraldatzea bultzatu.
3. Euskara ardatz izanik eleaniztasun egitasmo orekatua garabidean jartzeko bitartekoak aurreikusi eta esleitu.
4. Euskal curriculum integratua sortzeko urratsak egin

ANTOLAKETA MAILAKOAK

HARREMAN MAILAKOAK

KURRIKULARRAK

1. Euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez (bakoitza bere lurralde eremuan) ahozko zein idatzizko mezuak autonomiaz eta sormenez ulertu eta ekoitzi.
2. Euskal Herriko hizkuntza propioa ahalik eta eremu gehienetan erabiltzeko konpromisoa azaldu eta gure kultur ondarea ezagutu, estimatu eta hori defenditzen, kontserbatzen eta hobetzen lagundu.
3. Hirugarren hizkuntzari dagokionez, oinarriko komunikazio esparruetan gertatzen diren ohiko egoeren eta ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertu eta ekoitzi.
4. Laugarren hizkuntzari dagokionez, eguneroko testuinguru ezagunetan eta gai orokor eta arruntei buruzko ahozko nahiz idatzizko mezu sinpleak ulertu eta ekoitzi.
5. Herriaren eta norbanakoen eskubidetzat eduki eta onartu hizkuntza eta kultur aniztasuna, eta eskubide horretaz baliatzerakoan errespetuzko eta konpromisozko jokabidea agertu, sor litekeen edozein diskriminazio arbuia eta ekiditen ahalegindu.

EZ KURRIKULARRAK

1. Irakasleen arteko hizkuntz harremanak arautu.
2. Ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezen ahalegindu.
3. Euskal ekimen kulturalak sortu eta herritarren artean zabaltzeko, eta beste erakunde sozialek proposatutakoetan parte hartu.

1. Ikastolako gobernu eta funtzionamendu organoetan gauzatzen diren harremanetan euskararen nagusitasuna indartu eta bideratu.
2. Langile irakasle eta irakasle ez denaren hizkuntz profil egokiak bideratu.
3. Ikastetxeko giroa euskalduna izateko neurri egokiak hartu.
4. Ikastolako dokumentazioan erabilitako euskara gaurkotu eta egoki eta zuzen idazten saiatu.

1. Familiek ikastolakoekin eta etxearekin harremanak euskaraz izan ditzaten saiatu.
2. Euskaldunak ez diren familietan euskararekiko zaletasuna eta errespetua landu.
3. Administrazioako erakundeekin izaten diren harremanetan ahalik eta euskara gehien erabili, alegia euskararen nagusitasuna sendotu.
4. Ikastoletan eta bestelako eragileen arteko askotariko harremanetarako hizkuntz irizpideak ezarri.
5. Euskararen normalizazioaren alde ari diren erakundeekin elkarlanerako harreman sistematikoak ezarri.

IV.-IKASTOLEN IZAERA eta HELBURUEI DAGOKIEN HIZKUNTZ eta HEZKUNTZA POLITIKARAKO OINARRIAK

Euskararen eta euskal hezkuntzaren inguruan dihardugunok, besteak beste, hizkuntza (euskararen) normalkuntza bideratu ahal izateko lan egiten dugu. Alabaina, zer ulertzen dugu guk hizkuntz normalkuntzaz?

Gure aurrekoek (Azkue, Eleizalde edo Urkixo, eta neurri txikiago batean, gerra ostean, Euskal Herriko bazterretan barreiatuta dauden zenbait Euskara Elkartek) hizkuntza berrezarri, edo 70eko hamarkadan horren ezagun eta oraindik baztertu gabeko (Josu Mezo –1996–) euskara berreskuratu terminoen alboan, eta, Paisos Catalans-eko intelektual (Aracil, Fuster, Vallverdú, eta beste asko) multzo baten eraginez, batik bat, gure artean, hizkuntz normalkuntza terminoa nagusituz eta egokituz joan da. Hartara, hasiera batean, euskararen batasuna (nazioartean *corpus planning* deritzonaren kidekotzat hartuko genukeena) eta hizkuntz normalkuntza (*status planning*) terminoen artean gertaturiko teilakatzea tarteko, esanahiaren inguruan adostasuna ez bazegoen ere, 1980an, askoren artean idatzitako *Euskararen Liburu Zuria* (Euskaltzaindia, 1977) erabiliko zen erreferentzia nagusitatzat. Erreferentzia horrek, alderdi sozialari dagokionez, erdarek euskara ordezkatzeko (*language shift*) prozesuaren alderantzizko prozesutzat dakusa hizkuntzaren normalkuntza (Txepetxen, Larrañagaren eta Azurmendiren lanak gogoan izatekoak dira).

Hartara, hizkuntz normalkuntza euskararentzat hiztunak mantentzera eta gehitzera zein erabilera eremuak irabaztera bideratutako prozesu sozialtzat definituko genuke. Horren kariaz, alderdi ez-formal zein formaletan, ahozko zein idatzizko elkarrekintzetan, hizkuntz komunitatearen barne erlazioetan euskara ohiko hizkuntza bihurtuz edo mantenduz.

Definizioak bi alderdi azpimarratu nahi ditu, besteak beste, alde batetik, hiztun kopuru nahikoaren beharra, bai kopuruaren nola baita dentsitate eta kontzentrazio-espazialari dagokienez, eta familia zein lagun-giroa eremuez gain ideiak eta esperientziak transmititzeko gaitasuna (soziologikoa, ez linguistikoa bakarrik). Ingurumari horretan, hezkuntzak bi funtzio nagusi beteko lituzke: a) *funtzio kontserbatzailea*, hau da, gizarte jakin batek metatu duen kultur ondare hautatua belaunaldi berrietara pasatzea; b) *funtzio berritzailea*, hau da, gizarteak dituen aldaketa beharrei eta eskaera berriei erantzuteko trebatzea.

Hiztunak mantendu edo gehitu eta bizi ahal izateko erabilera eremuak irabazi, esatea erraza da, baina, hezkuntzaren eremutik nola bideratu ahal da hori?

1.-Euskararen eta euskarazko irakaskuntza indartuz

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza finkatzen ari dira Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, baina, Bigarren Hezkuntzan eta Unibertsitatean goraka egin arren, oraindik asko falta da egoera normalizatzeko. Halaber, lan munduan euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeari begira Lanbide Heziketan euskararen egoera guztiz kezagarria da. Datu horien proiektzioa baikor begiratzen duenak, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak goi mailako ikasketak egitera iristen direnean euskarazko irakaskuntza ere batera goraka joango dela esango du, baina ikasleen azpiko presioa egon arren, argi dago goi mailako irakaskuntzan zailtasunak eta erresistentziak are handiagoak direla. Euskarazko irakaskuntza ez bada garatzen Lanbide Heziketan zein goi mailako ikasketetan, lehen urteetako ahaleginak erdi bidean geratuko dira eta erdarek jarraituko dute prestigioko hizkuntza izaten. Diagnostiko hori iluna da Nafarroan eta are ilunagoa Iparraldean.

Datuak ikus ditzagun:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZ EREDUEN EGOERA ETA BILAKAERA IRAKASKUNTZA EZ UNIBERTSITARIOAN¹

	1982-83	1987-88	1992-93	1997-98	1999-00
X eredia (%)	19	1	1	1	-
A eredia (%)	61	68	57	44	37
B eredia (%)	8	13	18	19	21
D eredia (%)	12	18	24	36	42
Ikasleak guztira	523.622	499.154	421.058	342.612	310.283

Iturria: M. Zalbide (1998: 379), 1997-98. urtea arte, 1999-00 datuak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZ EREDUEN ZEHAZTAPENA (1999-2000 IKASTURTEA)

	3-6 urte	6-12 urte	12-16 urte	16-19 urte	batez bestekoa
A eredia (%)	13	24	39	76	37
B eredia (%)	32	29	23	-	21
D eredia (%)	55	47	38	24	42
Ikasleak guztira	53.491	98.790	85.752	342.612	310.283

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

NAFARROAKO HIZKUNTZ EREDUEN ZEHAZTAPENA (2001-2002 IKASTURTEA)

	3-6 urte	6-12 urte	12-16 urte	batez bestekoa
G eredia	41,53	48,92	69,81	54,00
A eredia	29,53	26,98	11,15	22,44
B eredia	0,21	0,26	0,16	0,21
D eredia	28,73	23,84	18,88	23,35
Ikasleak guztira	15.100	29.376	21.311	65.787

Iturria: Nafarroako Gobernua

¹ EAeko eta Iparraldeko zenbakizko datu guztiak ehunekotan eman dira, hamartarrik gabe eta hurreneko zenbaki osoaren arabera biribilduta.

**IPARRALDEKO HIZKUNTZ EREDUEN ZEHAZTAPENA
(1992-1993 ETA 1997-1998 IKASTURTEAK)**

	Ama eskola (1997-98)	Lehen Hezkuntza (1992-93)	Bigarren hezkuntza (1992-93)
G-X eredia (%)	77	85,5	84
A eredia (%)	6	6,5	11
B eredia (%)	6	5	3
D eredia (%)	11	3	2

Iturriak: F. Etxebarria (1998), Ama Eskolako datuak Inspection Académique des Pyrénées Atlantiques (1997-98 ikasturtea); Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako datuak, Jaureguiberri (1992-93 ikasturtea)

Hartara, hezkuntzan jarraitu beharko da euskara eta euskarazko irakaskuntza sendotzen, ikasle guztiek, etxetik euskaldun zein erdaldun direnek, euskara, hitzez eta idatziz, ondo mendera dezaten etorkizunari begira, bada, ildo estrategiko (Gunea, 2000; Kontseilua, 2000) hauek nabarmentzen ditugu:

- Euskararen ofizialtasun juridiko legala lortu Nafarroan zein Iparraldean.
- Iparraldean euskarak hezkuntza sisteman erabateko babes juridiko legala izan dezala lortu.
- Nafarroako eskualde orotan euskarazko hezkuntzak babes juridiko legala izan dezala lortu behar da.
- Dagoeneko euskara ofiziala den euskal lurraldeetan euskarazko eskaintza erabatekoa ziurtatu, ikasmaita eta jakintza gai guztietan. Batez ere garrantzi handikoa izango da, euskarazko irakaskuntza goi mailako ikasketetan, hau da, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean hedatzea.
- Euskara ofiziala lortzekotan den euskal lurraldeetan euskarazko eskaintza erabatekoa ziurtatu haur eta lehen hezkuntzan lehen epean, eta epe luzeagoko plana egin ondorengo ikas mailetarako.

2.-Etorkinak euskalduntzeko bideak asmatuz

Euskal Herriko biztanleriaren beherakada eta 25 urtez beheko adin taldeetan gertatu den biztanleen urritze progresiboa ezaguna da. Adibidez, EAEn, 1982-83 ikasturtean, 523.622 ikasle ari ziren irakaskuntza ez unibertsitarioan ikasten, 1999-2000 ikasturtean, aldiz, 310.283 ikasle. Hamazortzi urteko epean ikasle kopurua %40,75 jaitsi da. Euskal Herriko biztanleria zaharkitzen ari da. Bestetik, mundu mailan, bereziki herrialde behartsuetan gertatzen ari den hazkunde demografikoa ezaguna da. Euskal Herrian eskulana behar da, eta herrialde behartsuetan eskulana eta gosea sobera dago. Ez da igarle izan beharrik Euskal Herrian etorkinen emanaldi berri baten atarian gaudela jakiteko, lehenago gertatu dislokazio demografikoaren (Fishman) eragina indartzuz.

EAEko –behin behineko- datuak ikus ditzagun:

EAEn, ESKOLATUTAKO ETORKINAK (2001-02 IKASTURTEA)

Lurraldea	Orotara	Emak.	HH	LH	DBH	BATX.	H. Berez.	Lan. H.	Held. H.
Araba	1.200	540	132	347	240	49	24	30	378
Bizkaia	2.713	1296	406	935	604	92	5	74	597
Gipuzkoa	1.532	776	244	464	328	66	2	76	352
EAE	5.445	2612	782	1746	1172	207	31	180	1327

Iturria: Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

EAEn, ESKOLATUTAKO ETORKINAK (2001-02) DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZAN (SAREAK KONTUAN HARTUZ)

Lurraldea	Publikoa		Pribatua	
Araba	%76,03	625	%23,97	197
Bizkaia	%68,29	1445	%31,71	671
Gipuzkoa	%54,75	646	%45,25	534
EAE	%66,00	2716	%34,00	1402

Iturria: Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Zer gertatuko da etorkinen emanaldi berriekin? Etorkin berriek ez dute ez euskara ez gaztelania ezagutzen. Zein izango da horien hizkuntza eta kultur erreferentzia?. Badirudi gizartean nagusi dena izango dela beraientzat ere, beraz horrek ez du euskararen eta euskal kulturaren alde jokatzeko. Erronka zaila izango da euskararen behar larririk izango ez duten pertsona helduei euskaraz ikasteko gogoia suspertzea (Aek, 2001). Eskola garaiko etorkinekin, batez ere koskortuekin, aukerak ez dira errazak baina pertsona helduekin baino errazagoak. Horiekin ondo asmatu beharko da integrazio eta kulturen arteko bideak erabiltzen (Siguán, 2000), beren hizkuntza eta kultura galdu gabe, euskara eta euskal kultura bereganatu ditzaten.

3.-Euskararen kalitatea zainduz eta eredu ona erakusten ahaleginduz

EAEn, 1982ko Euskararen Normalizazio Legeak, derrigorrezko irakaskuntza amaitzen denean, ikasle guztiek, jatorriz euskaldunek zein erdaldunek, elebidun orekatuak izan behar dutela agintzen du. Alabaina, 1974tik 1998ra egindako elebitasunari buruzko ikerketen arabera (Etxebarria, 1999) euskararen bitartez lortutako emaitzek harreman estua dute euskarari eskaintzen zaion irakaskuntza denborarekin. D ereduko emaitzak B eredukoak baino hobeak dira, eta B eredukoak A eredukoak baino hobeak. Alabaina, badira D ereduak ikasitako ikasleak oso erraz eta aise euskaraz hitz egiten eta idazten dutenak, baina, idazmenerako eta, bereziki, mintzamenerako zailtasun handiak dituztenak. Etxeko hizkuntzak, ingurune soziolinguistikoak, hizkuntzen arteko interferentziak, metodologia didaktikoak eta abarrek badute eragina.

Alta, gazteen artean euskarak izan duen bilakaeren kontrapuntu gisa, erabiltzen den hizkuntz ereduak jarri beharko genuke. Izan ere, hizkuntz ereduak euskararen aldaerekin, tokian tokiko aldaerekin, egoera “naturalean” eskusibotasunez edo nagusitasunez hitz egiten denarekin alderatzen badugu geroz eta deslotuago azaltzen baita, horrek dakarren guztiarekin, aldaerak bizirik egon ohi diren ohiko guneetatik eta hizketa interakzioetatik aldentzea, eskolaz kanpoko hizkuntzaren erabileran eraginez (Zalbide, 1998; Zuazo, 2000). Halaber, gazteen artean euskararen erabilera indartzeko bestelako aldaerak (argota, hitanoa, etab) sailkatzea eta kontuan hartzea garrantzi handiko kontuak dira. Izan ere, euskara egokia eta une egokian erabiltzeko gai ez den hiztunak ez du komunikaziorik lortuko, ez du hizkuntza erabiliz gozatuko, eta, azken batean, euskara bazterrean utzita beste hizkuntza batez baliatuko da.

Halaber, euskara “ona” erakusteko orduan irakaslea denez mezuaren zubi egiten duena, bera da aipatu faktore horien guztien azken katea. Horregatik du garrantzi handia irakaslearen hizkuntza ereduak. Euskara “ondo” erakusteko, euskara “ona” erabili behar baita. Halere, hori ere ez da nahikoa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei buruz eta zehazki hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei buruz ondo bermatutako printzipio teorikoak eta faktore pedagogikoak badira. Bada, irakasle “ona” izateko, informazio teoriko hori bere eguneroko praktikan duen eskarmentuarekin uztartzen asmatu behar du.

Etorkizunari begira, bada, ildo hauek azpimarratuko ditugu:

- Euskaraz ondo hitz egitea eta idaztea bada euskararen normalizaziorako helburua, eskoletako hizkuntza nagusia euskarak izan beharko du.
- Ikasle bakoitzaren hizkuntza abiapuntuari egokitutako murgiltze ereduak definitu, DBH amaitzean ikaslearen gaitasuna bermatua izan dadin.
- Eskoletan oinarritzat hartzen den hizkuntza ereduak arreta berezia eskaini behar dio tokian tokiko euskararen aldaerei.
- Etxetik erdaldun diren haurrak euskalduntzeko asmoz Haur Hezkuntzaren eta Haurtzaindegia garrantzia berebizikoa da.
- Irakasleek euskara “ona” erabil eta euskara “ondo” irakats dezaten, hasierako eta etengabeko prestakuntzan ahalegin are handiagoak egin behar dira.

4.-Euskararen erabilera elikatuz

Zer egin dezake eskolak erabilera sustatzeko? Besteak beste, hezkuntza komunitatearen harreman sareetan euskararen erabilera eragozten duten buxonak eta etenak identifikatuz eta gainditzeko estrategiak zehaztuz, eta bere jendearentzako “arnasguneak” eratzen, bilatzen eta mantentzen berariaz ahaleginduz. Euskarazko arnasgunea, demografi aldetik euskara “bere habian” sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe etxeko jaun sentituko den eremua, leku-eremu horiek euskarazko bizibide jatorraren oasiak-edo bihur litezke, kulturazko autoerregulazio handiko guneak. Gurea bezalako hizkuntza ahulek hain sarri sufritu behar izaten duten dislokazio fisikoari (Fishman) aurre egiteko bidea.

Izan ere, hizkuntza txikiek ere, hiztun-herri gisa jarraitu nahi badute, beren *demographic concentration*eko arnaguneei eutsi behar diete. Hartara, zenbat eta euskaldunak elkarrengandik gertuago bizi/egon hainbat eta anparo handiagoa emango diote batak besteari, erdaldunak euskara ikastera eta euskaldun motelak (ele-eraskanak) hiztun sendoago bihurtzera bultzatzen dituzten “social norms” eta “interactive situations” direlakoak ugarituz.

Arnaguneen eta, oro har, demografiaz trinko diren euskal eremuen normalkuntza fisikoak, ezer esan nahi badu, zera esan nahi du: gutxien-gutxieneko, oreka modu bat lortzea ingurune eta jardungune batzuetan euskara-erdaren artean, hesi moduko bat mantentzea. Hartara, zenbat eta arnagune espazialki aberatsagoa, erabileraz aberatsagoa izango da.

Txikitan, gehienbat irakaslearekin, baina baita gelako lagunekin ere, gela barruan eta, batzuetan, baita kanpoan ere euskaraz hitz egiten dute nagusiki. Adinez aurrera egin ahala, ordea, irakaslearen eta eskolaren eragina ahultzen doa eta gizarte bizitzako beste erreferentziak indartzen. Gizarte-ingurune euskaldun-erdaldunen dentsitatearen arabera, gaztetxoak euskaraz edo erdaraz egiteko joera dute. Errealitate horren aurrean eskolaren babes mugatua bada ere, “Euskaraz bizi” eta antzeko programen laguntzaz, gaztetxoek euskararekiko jarreretan eta ohituretan eragin behar dugu, baina programa horiek eskolaren eremuan eragin handiagoa dute kanpoan baino. Eskolaz kanpo eragiteko, batez ere gune erdaldunduenetan, euskara erabiliko den eskolaz kanpoko arnaguneak antolatzen jarraitu beharko da.

Etorkizunari begira, bada, erronka hauek azpimarratuko ditugu:

- Euskaraz hitz egiten ondo irakatsi eta euskara ona irakatsi, ikasleak euskaraz erraztasunez jarduteko gai izan daitezten..
- Euskara eta euskal kultura maitatzen erakutsi, ikasleek euskararen aldeko jarrera baikorra eta atxikimendua beregana dezaten.
- Ikastoletan barruan zein inguruan euskararen erabilera indartzeari begira egitasmo osagarri andana sortu edo egun abian direnak horretara fokalizatu eta baliabidez hornitu (materialak, baliabideak, etab).
- Bereziki gune erdaldunduenetan, ikasleek eskola barruan euskara erabiltzeko joera eta ohitura har dezaten, euskara erabiltzeko proiektuak antolatu.
- Ikastola kokatuta dagoen ingurunean arnaguneak eraikitze aldera jotzen duen euskararen normalizazioaren eragiletza indartu. Eskolaz kanpoko ekintzak antolatuz: kirola, aisialdia, dantza, musika, gazteen txokoak, etab.

5.-Euskara eta euskal kultura ardatzak izanik, kulturantzatasuneko eta eleaniztasuneko planteamenduak indartuz eta hedatuz

Oinak lurrean, XXI. mendean, gainerako hizkuntzak –ingelesa– oro har, Euskal Herrian frantsesa eta gaztelania bereziki, albo batera utzita, hizkuntza gutxitu bat – euskara– mantentzea eta indarberitzea (Fishmanen RLSren –Reversing Language

Shift- itzulpen gisa Hizkuntza INdarBerritzea –HINBE litzateke bere akronimoa– erabiltzen dugu) bideratu litekeela ez dugu uste. Bada, euskaldunon etorkizuna eleaniztuna da, alabaina, euskarak eskola eremuan hizkuntza nagusia izan behar du eta eskola eremuko hizkuntza planifikazio guzti-guztiek gutxienez aurrebaldintza hori bermatu behar dute, atzerriko hizkuntzaren ikasketa euskara mailaren eta jarreraren kaltean gerta ez dadin.

Hizkuntza eleaskotariko irakaskuntzaren saioak hedatzen ari dira; ez da gauza bera gertatzen, ordea, kulturantzatasunari dagokionez. Hartara, hezkuntza komunitatean geure artean patxadaz hausnarketa egin behar dugu jakiteko gure egoerarako zer-nolako kulturen arteko eredu eta *curriculum* eredu iruditzen zaigun egokiena.

Euskal eskolen *curriculum* eraikitzeke, berreskurapen eta integrazio kulturalaren eredu arteko uztarketa egitea proposatzen dugu, beraz, hizkuntzen alorrean euskara eleaniztasunaren ardatzat ezartzen dugun antzera, *curriculum* eredu euskal kultura ardatz izatea. Hori da proposatzen duguna, baita horren inguruan ukipen kulturak, *curriculum* ofizialak, Europako kultura eta kultura unibertsala uztartzea ere. Norberaren kulturatik abiatzea iruditzen zaigu norabiderik egokiena bizikidetzara eta kultura unibertsalera iristeko.

Euskal Herriko egoera kulturantzituna eta eleaniztuna da eta etorkizunean, inmigrazioaren eta globalizazioaren eraginez, ezaugarri horiek indartzen joango dira. Hartara, euskaldunon etorkizuna eleaniztun eta kulturantzitun izango da. Egoera horren aurrean eskolaren erronka hau da:

- Elebitasun planteamendutik eleaniztasun planteamenduetara aldatzea, baina betiere ondo zainduz euskara eskola eremuan hizkuntza nagusia izan dadin.
- Euskal *curriculum*ari dagokionez, euskal kultura ardatza izanik, horren inguruan inmigranteen ukipen kulturak, *curriculum* ofiziala eta Europako eta mundu zabaleko dimentsioak uztartzen dituen *curriculum* integratzailea gauzatzea.
- Hizkuntz Proiektuak errealitatean oina hartuz indarrean diren lege arauak kontuan hartu behar baditu ere, eleaniztasunean oinarri duen proposamenak, elebitasunaren inguruan ardazturiko egungo legedia gainditu, egungo egoera eraldatu eta eleaniztasuna ardatzat hartuko duen berariazko lege geriza behar ditu. Hartara, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak hori lortzeko urratsak egingo ditu.

6.-Eskolaren eginkizuna kontuan hartuz, gizarteko eragileen arteko elkar lankidetzara bideratuz

Orain arte eskolaren eginkizunari buruz erabakita daukaguna gogora ekarriz:

“(…) ez da ahaztu behar eskolak bizitza sozialeko esparru ezberdinetan joka dezakeen eginkizun eraginkorra hizkuntza erabilpenaren bizkortzean. Izan ere, eskolak, hizkuntzaren agente birsortzaile sozial bezala, ez du mugatu behar bere eginkizuna hizkuntzaren irakaspen akademikora, baizik eta hizkuntza horren erabilpena bultzatu behar du haurren bizitza sozialean, eskolaz kanpoko bere ekintzetan. Eragotzi egin behar da kostatuta euskara hizkuntza akademiko soil bihurtzeko arriskua, hau

da, eskola barruko esparruetan bakarrik (eta ezta jolas-garaian, etab. ere) erabilia izatekoa, ikasleen eskolaz kanpoko bizitzan inolako erabilpenik izan behar ez balu bezala” (In *Euskal Eskola*, 1991. Ikastolen Elkartea, 27. orrialdea)

Eta, gizarteko eragileen arteko lankidetzari buruz:

“Eskola da hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarritzkoenetakoa. Bere eginkizuna, ordea, erlazionatuta egongo da euskal gizarteko beste sektore guztiekin, interakzio-prozesu batean, non eskola izango baita euskalduntzearen bultzatzailea. Baina, aldi berean, gizarteak bere egoera egokitzen joan behar du hizkuntza errealitatera, bai gaurkora eta bai etorkizun hurbilekora. Administrazioa eta gizartea, orokorki, ezin dira mugatu gaurko eskaerari erantzuna ematera, planifikatu egin behar dute eta baldintza egokiak sortu gaur eskoletan euskalduntzen ari diren hurrek, bizitza sozialeko edozein esparrutan, beren ahalmenak euskaraz garatu ahal izan dezaten biharko egunean” (In *Euskal Eskola*, 1991. Ikastolen Elkartea, 27. orrialdea)

Ingurumari honetan, Euskara biziberritzeko Plan Nagusiak (Eusko Jaurlaritzak, 1999), eta berorren garapena den eta etorkizun hurbilean EAEko udalari gehienetan eragin handia izango duen *Udal Eremuen Araberako Hedapenak* (Eusko Jaurlaritzak, 2001) hiru eremu estrategikoren inguruan biltzen dituzte proposamenak:

- a) Euskara ondorengoetaratzea: euskara, belaunez belaun eta etenik gabe, ondorengoetaratzea. Euskararen geroratzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz.
- b) Euskararen erabilera indartzea: belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegina eta gaztelania bezain balioko egitea bilatuz eta, horretarako, euskarazko zerbitzuen “eskaintza” eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu garrantzizkoetara zabalduz.
- c) Euskararen elikaduran eragitea: euskara, bigarren hizkuntza gisa, eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza-ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagunduz.

Plan estrategikoko honetan, irakaskuntza euskara ondorengoetaratzeari dagokion multzoan kokatzen da. Hori da irakaskuntzaren funtzio nagusia hain zuzen: belaunaldi berriei euskara ona eta ondo irakastea. Hala ere, irakaskuntzaren funtzioa, adibidez, ezin da mugatu euskara irakastera. Izan ere, irakaskuntzaren eta eskolaren betebeharra ere bada euskararen erabilerari eragitea, bidenabar, euskararen elikaduran eraginez. Gauzak horrela, ezinbestekoa da eremu guztietako eragileen arteko harremana eta koordinazioa sustatzea.

Era berean, gure iritziz, gizarte eragileekin askotariko ekimenak zehaztu eta abian jartzeko unean, honako lau irizpideok kontuan hartzea proposatzen dugu:

- Leku bakoitzean euskararen belaunez belaun transmisio sendoena bermatu dezaketela iruditzen zaizkigun ekimenak eta proposamenak aukeratu eta lehenetsi ditzagun.

- Ekimenak lehenesteko unean egingarrienetatik has gaitezen eta, egitasmo handi, eta, zenbaitetan egiteko zailak direnak, hurrengo baterako utz ditzagun.
- Elkar joka eta muturka ibili ordez, elkarren eskutik joaten saia gaitezen, erdal eta euskal esfera soziokulturalek. Ahal den neurrian, elkarri lagunduz elkarri behaztopa egin beharrean. Hartara, bi erataria lagun diezaguke erdal munduak, batetik, euskararen kontra ez daudela esaten badute behin eta berriro, eman diezaiegun nahi adina aukera, behar den errespetuz eta begirunez, beren ongina hori praktikara eraman ahal izan dezaten.
- Bihur dezagun euskarazko jarduna irabazpide, erdal mundu hori ere, modu batera edo bestera, euskalgintzaren gurpilera hurbiltzen saiatuz

Bada, aurrera begira proposatzen ditugun ildo estrategikoak:

- Euskararen normalizazioa lortu nahi bada, plangintza integrala indarrean jarriz lortuko da eta ez ekintza bakartuen bidez. Aipatu ditugun erronka guztiei ezin zaie eskolaren bidez bakarrik erantzun.
- Euskararen kalitatearen, erabileraren eta ikasmaterialen egokitasunaren erronkei aurre egiteko beste eragile sozialek ere parte hartzea eta horiekin lankidetzan aritzea ezinbestekoa izango da.

V.- HIZKUNTZA, KULTURA eta METODOLOGIA IKUSPEGIAREN OINARRIAK

1.-Hizkuntzari buruzko ikuspegia

Hizkuntza aktibitate bat da (Leontiev), gaitasun bat (Chomsky), modulu operatibo bat (Fodor), hizketa ekintza multzo bat (Austin, Searle), baina, produktu bat ere bada (gramatika tradizionala), subjektua behar ez duen egitura bat (Lévi-Straus), sistema formal bat (Hjemslev). Alabaina, gure iritziz, gauza guztien gainetik, hizkuntza hautazko zeinuen sistema da, giza komunikaziorako erabilia.

Sistema bat dela esateak hizkuntzaren alderdi estrukturala azpimarratzen du, elkarloturik dauden neurrian eta osotasunari erreferentzia egiten dioten neurrian beren zentzu eta balio osoa duten elementuz osaturik dagoen sistema. Alabaina, hizkuntza sistemaren unitate komunikatiboa ez da hitza, ez eta esaldia ere, diskurtsoa baizik, askotariko testuetan gauzatzen dena. Testuek, aldiz, komunikazioa gertatzen den xedeari eta egoerari (kontestuari) egokitzen zaizkie, eta, beren osotasuna lortuko dute, baldin eta, bidenabar, euren arau propioez gain, azpi-sistema fonologiko, morfosintaktiko eta semantikoaren arauak ere betetzen badituzte.

Hizkuntza arauen, hiztegiaren eta egituren ezagutza (inplizitua edo esplizitua, Eredu Deduktiboa –*Guided Presentation*– edo Eredu Induktiboa –*Discovery*– erabiliz), beraz, beharrezko baldintza da komunikaziorako; baina, ez da nahikoa. Komunikazioa eragingarria izan dadin, hizkuntzaren erabilerarako arauak –halako edo bestelako forma linguistikoak halako egoeretan, halako pertsonekin eta komunikazio-xedea kontuan

izanik– erabiltzen jakitea behar beharrezkoa baita. Bada, sistema eta komunikazioa elkarloturik daude, beraz, hizkuntza komunikaziorako sistema dela esan daiteke; zehazkiago, kontestu sozialetan komunikaziorako erabiltzen den sistema daiteke; zehazkiago, kontestu sozialetan komunikaziorako erabiltzen den sistema.

Komunikazioan oinarri duen ikuspegiarekin uztartutako hizkuntzaren ikuspegi hori, azken urteotan hizkuntzalaritzan gertatu den bilakaeraren ingurumarian kokatzen da. Hartara, jakintza-mota askotariko emaitza teoriko eta praktikoen bilgune izaki, ez dago halako metodo zehatz bati lotua, izan ere, planteamendu komunikatiboaren kontzeptua zabala da, eta, bere baitara biltzen ditu, irakaskuntza estrategia jakin bat ez ezik, helburu-multzoa, hainbat metodologi printzipio, irakaskuntza-teknika tipiko batzuen deskribapen xehea eta abarrak ere. Halaber, bi ikuspegiak uztartze aldera, bi ikuspegiaren arteko lotura azaltzeko, egokia dugu, lehen momentuan *continuum*aren irudia erabiltzea, edo, Robert O’Neal-ek antolaturiko *Spiral Syllabuses* delakoa.

Alabaina, hizkuntzaren funtzionamenduari dagokionez, Ikastolen hezkuntzaren ikuspegi orokorra paradigma eraikitzailean, eta, bereziki, Vigotskyren inguruko interakzionismo sozialean errotzen denez, pertsonaren garapenaren atal nagusia den hizkuntzari buruzko kontzeptioa paradigma horren barruko hizkuntzaren jabeakuntzaren teorietan oinarritzea logikoa da. Hargatik, gure Hizkuntz Proiektuaren oinarrian hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboa dago.

Ikuspegi horrek, hizkuntza talde ekintzaren, elkarrekintzaren zeinu bezala ikusten du, eta, beraz, hizkuntza formen deskribapen abstraktua alboratuz, haien esanahia erabileraren bitartez bakarrik eraikitzen dela baieztatuko du, eta, hizkuntzaren talde ekintza erregulatze tresna izaera hobetsiz, garatuko ditu hizkuntzaren beste alderdi nagusia: barne antolaketarako tresna, errealitatea irudikatze eta pentsamendua garatzeko tresna izaera.

Komunikazioan eta erabilera sozialean oinarritutako hizkuntzaren azterketak, Van Dyjkek (1978) proposatutako “testuaren zientzia”n bildu bezala, diziplina arteko izaera izan beharko du. Beraz, Hizkuntz proiektuan, askotariko alderdiei erantzun ahal izateko, komunikazioaren teoriak, besteak beste, linguistika diskurtsiboa, funtzionala, soziolinguistika, ama hizkuntzaren garapenaz arduratzen den psikolinguistika interakzionala, hizkuntzaren psikopedagogia, elebitasunaren inguruko ikerketa psikopedagogikoak, zein bestelako diziplinatatik ekarpenak jasoko ditu.

2.-Hizkuntzak eta kultura transmisioa

Hizkuntzak, haiek guztiak, ez dira ideia, nahi eta esperientziak pertsonen artean trukatzeko bitarteko soilak. Horrez gainera, hizkuntzak, eta beste osagai batzuen ondoan, beraien loturiko kulturen erakusle edo adierazpen sinboliko dira (azken batean, komunitate etnokulturalarenak), kultura horien zati dira eta beroriei, neurri handi edo txiki batean, komunikaziorako oinarria ematen diete.

Hartara, gure ikuspegitik, ez dago kultur edukirik gabeko euskararik eta beraz, zaila litzateke Hizkuntz Proiektua definitzea euskal kulturari edo, hobe esanda, euskal kulturaren berezko aspektuei erreferentziarik egin gabe.

Curriculumaren Euskal Dimentsioaren inguruko ikerketa Ikastola mugimenduaren oinarritzko zeregin bat da, eta ikerketa talde bat izendatu da eginkizun hau bideratzeko. Talde horrek eztabaidarako plazaratutako dokumentuan gai honen inguruan egin beharrekoa eta ikastola bakoitzaren zeregina ere adierazten dira:

“Ikastolen *curriculumaren* euskal dimentsioa eraikitzaera bultzatzen gaituen gogoia bikoitza da (...) Erreferentzia komunak konpartitzeak eta horrek eragiten duen gutasun-sentimenduak elkarrekin bizitzeko gogoia pizten du. Baina, aurrekoarekin batera, egitasmo honek badu beste gogo osagarri bat: hizkuntza eta kultura anitzeko gure komunitatean, guztiok bateratzen gaituen kultur ondarearekin batera, aniztasunaren eta kulturartekotasunaren planteamendua guztiz beharrezkoa dela aitortzea eta bide horretatik ekitea”

“Plangintzaren xedeak aurreko bi horiek izanik, lehen fase honetan ondorengo galderari erantzuten saiatuko gara: **zein dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean, Euskal Herriko ikastoletan ikasten ari den 16 urteko gazteak, euskal kulturari buruz gutxienez ezagutu behar dituen gertaera eta kontzeptuak, egiten jakin behar dituen prozedurak eta bereganatu behar dituen balioak eta jarrerak?**

Erreferentziazko adina 16 urtetan jarri dugu, hori baita Frantzian eta Espainian derrigorrezko irakaskuntza bukatzeko adina. Halaz ere, ikasle askok 18 urtera arte euren ikasketak ikastolan jarraitzen dituzte eta, bestetik, ikasteko garaiak urteen mugarik ez duela gero eta gehiago azpimarratzen da; arrazoi horiengatik, 16 urteko erreferentzia hori malgutasunez hartzekoa da. 16 urteko erreferentzia mantentzen dugu, curriculuma definitzeko eta ondoren urtez urteko segida emateko erabaki praktikoa delako, baina sakonean horko erantzunak baliagarria izan beharko luke euskal kulturaz oinarritzko informazioa eta trebetasunak bereganatu nahi dituen edonorentzat, ikastoletakeko gurasoek barne, jakina” (Xabier Garagorri, *Ikastolen curriculumaren Euskal Dimentsioa* (2001-XI-19). Argitara gabea)

3.-Hizkuntzari buruzko ikuspegi metodologikoa

3.1.-Komunikazioaren inguruan, hausnarketa


Adierazitako komunikazioaren ikuspegia didaktikoki garatzeko unean, paradigma eraikitzaile-interakzionalaren barruan koka ditzakegun korrante metodologikoen ekarpenak kontuan hartu izan ditugu², batzuetatik eta besteetatik gure beharrei erantzuteko elementu egokienak hartuz eta gureganatuz.

² Besteak beste, J. M. Artigalen “territorio compartido” edo eta “partekatutako eremuaren inguruko proposamena, Brunerren teorietan oinarritutako T. Taeschneren “formato” aren aplikapen didaktikoa, A. Teberoskyren hizkuntza idatziaren garapenerako paradigma eraikitzailea, murgiltze programen inguruko proposamenak, ingelesaren glotodidaktikako ekarpenak, adibidez Nunan eta besteen “ataza bidezko ikaskuntza”, etab.

Gure metodologi ikuspegia adierazteko, korrante hauek guztiek duten ardatz komunean oinarritu gara. Hizkuntza elkarrekintzan erabiliz, besteekin gauzak egiteko erabiliz garatzen dela sinesten dugu, hizkuntzaren elementuak ez direla era abstraktuan jasotzen, alderantziz, esanahia duten neurrian, partekatutako ekintzen testuinguruan txertatuta agertzen direnean bakarrik jasotzen direla. Beraz, komunikazioa izango da irakaskuntza-ikaskuntzaren estrategia nagusia; prozesuaren giltzarria hizkuntzaren erabilera esanguratsuak eta eragingarriak eraikitzean datza.

Komunikazio horrek hainbat baldintza bete beharko ditu hizkuntzaren jabekuntza bideratu ahal izateko:

1. **Komunikazio testuinguru aberatsa.** Gela barruko eduki eta harremanen inguru mugatua gaingiduz, ahalik eta bizitzako eremu guztietako esperientziak eskaini behar dira.
2. **Hizkuntzaren erabilera esanguratsua.** Proposatutako ekintzen funtzionaltasuna, ikasleen behar eta interesekiko lotura, hizkuntzaren egiazko tresna izaera ziurtatu behar dira batetik. Bestetik, ikasketa prozesuarekiko koherentzia, hau da, jasotako ‘input’aren eta produzitu beharreko ‘output’aren bideragarritasuna ere ziurtatzea ezinbestekoa da.
3. **Kalitateko interakzioa.** Hizkuntza eraikuntza soziala da; irakasle-ikasleek elkarrekin eraikitako testuinguruak, “partekatutako esparruak” (Artigal), ematen die esanahia hizkuntza formei. Beraz, elkarrekintza horren kalitateak garrantzi berezia du hizkuntzaren jabekuntza prozesuan eta kalitate hau bi esparrutan ziurtatu beharko dugu: harreman afektiboetan eta komunikazio ekintza eta jardueren egituraketa zehatz eta egokian.
4. **Hizkuntzaren gainean, hausnarketa.** Halaber, “Hizkuntzari buruzko ikuspegia” izeneko atalean aurreratutako hariari segida emanez, erabileraren inguruko hausnarketa, hizkuntzaren bidez egiten dugun horretan sortutako forma eta erregelen inguruko gogoeta funtzionala, erabilera hori hobetzeko bide garrantzitsua izango da. Hausnarketa hau, komunikazio eta erabileraren ikuspuntutik egiten dugun neurrian, diskurtsoaren mailatik abiatuta, komunikazio unitate diren testuetan oinarrituko da (ik. 3. irudia).



3. irudia

3.2.-Tarteko hizkuntza

Ikasleak hizkuntza ez jakitetik hizkuntzaren azken produktura heldu bitarteko uneez osatzen dute tarteko pausoak edo tarteko hizkuntza deritzana (Selinker, 1996).

Honela definitzen da tarteko hizkuntza: “bigarren hizkuntza edo hizkuntza arrotza ikasten ari denak erabiltzen duen hizkuntza da. Ikaslearen lehen hizkuntzaren eta ikasten ari denaren arteko sistema baten itxura du. Tarteko hizkuntza, ikasleak aurreratu ahala, ikasi beharreko hizkuntzaren gero eta antz handiagoko bilakatzen da. Hala ere, ikasleak oraindik ere erabiltzen ditu tarteko hizkuntzaren elementuak, ez lehen hizkuntzaren, ez ikasten ari denarekin zuzenean loturik daudenak” (Uzei, 1987).

Beraz, tarteko hizkuntza sistema ez-egonkorra eta dinamikoa da, izan ere, ikasleak, hipotesi berriak tarteko direla, lehenago eginda zituen hainbat hipotesi baztertu eta bere tarteko hizkuntza etengabe berraztertzen duela kontuan hartu behar baita. Tarteko hizkuntzetan dauden erroreak, bestalde, sistematikoak izan ohi dira eta bost kategoria nagusiri egokitzen zaizkio:

- H1-ren transferentzia: interferentziak deitu izan direnak
- H2-ren transferentzia: gainorokortzea. Ikasleek behin eta berriz erabiltzen du arau bat, baita erabili behar ez duenean ere.
- Ikasketaren transferentzia: erabili dugun materialaren ondorioa, edukiak antolatzeke orduan hartu dugun ordenaren ondorioa.
- Ikas estrategiak: ikasleak ikasteko eta hipotesiak egiteko erabili dituen estrategien ingurukoak.
- Komunikazio estrategiak: ikasleak bere gaitasunaren gainetik komunikatzeko erabiltzen dituen teknikak.

Erroreak, beraz, ikas prozesuaren berezko ezaugarriak dira eta ikaslea ikasten ari dela adierazten dute. Alabaina, tarteko hizkuntza fosiliza daiteke eta, ikasleak lehenago aipatu *continuum* horretan geldidunak izan ditzake, xede-hizkuntzara iristeko oztopo gertatuz.

Komunikazioan oinarritutako askotariko estrategiak erabiltzeak, berez, arrisku hori ere badakar. Izan ere, ikaslearen autonomia bideratu asmoz ikaslea komunikazio estrategiak garatzera bultzatzen dute. Hala ere, arrisku hori neurri batean murriztu ahal izateko pedagogi neurriak har daitezke, esate baterako:

- Hipotesi-eraketa fase horretan ikasleari lorratz gehiago eman ahal diogu hizkuntzaz egiten dituen hipotesiak fidagarriagoak izan daitezen, *Input* kopurua (eta baita *input*-kalitatea bera ere) handituz.
- Hipotesi-eraketa fase hori eragingarriagoa izateko ikaslea trebatuz: hizkuntzaren kontzientzia garatuz, ikasten ikas dezan bideratuz.

- Gaitasun errealez oso gaindi jardutera behartzen duten ikaskuntza komunikatibozko egoerak baztertuz eta jarduera komunikatibo baten aurrean jarri aurretik zailtasunak eta beharko duen hizkuntza aurreikusiz eta ikaslea horretarako prestatuz.
- Hipotesia probatzean *feedback* argia emanez eta, erroreak zuzentzeko, zeharkako zuzenketa gehiago erabiliz.

3.3.-Testu pedagogia

Korrante guztien artean, gure planteamendu didaktikoaren ardatz nagusitzat har dezakeguna **testu pedagogia** deritzona da, J-P. Bronckart eta Genevako eskolan sortutako proposamena, Euskal Herri mailan eragin berezia izan duena. Testu pedagogiak komunikazioa eta erabilera abiapuntutzat duen hizkuntzaren lanketa egituratzeko markoa eskaintzen digu. Hauek dira haren ezaugarri nagusiak:


- Hizkuntzaren lanketa ez era abstraktuan, baizik eta ikaslearentzat esanguratsuak izango diren **komunikazio proiektuek** gidatua izatea.
- Komunikazio egoeraren arabera erabili beharreko bitarteko adierazkorak desberdinak direnez eta testu bakoitzak ikaskuntza espezifikoa eskatzen duenez, **testu mota** desberdinekin lan egitea.
- Perpausaren garrantzia erlatibizatuz, komunikazio unitatetzat testua hartzea, hau da, **lan unitatea testua** izatea.
- Ikaskuntza **sekuentzia didaktikoetan** eratzea, jarduerak helburu didaktiko batzuen arabera eta zeregin komunikatibo zehatz baten baitan antolatuz eta artikulatuz.
- Lanaren helburua hizkuntzaren erabilera izanik, **prozedurak nagusitzea**, ikaslea, batez ere, “hizkuntzarekin gauzak egitera” bultzatzea.
- Esanahitik abiatutako **mezuaren eraikuntza lana** egitea. Komunikazio ekintzaren helburua eta testuingurua, adierazi nahi dugun edukia eta horien ondorioz erabiliko ditugun hitzak eta formak banaezinak kontsideratzen dira.
- Ezagutza instrumentala eta formala prozesu bakar batean integratzea. **Hausnarketa gramatikalaren** abiapuntua komunikazio ekintza zehatz bakoitza gauzatzeko sortu beharreko testua da, testuaren berezko ezaugarrietan eta ikasleen aurrezagueretan oinarrituz.
- Ikaskuntza prozesua ezagutzen aplikazio mekanikoan baino gehiago maila goreneko **estrategia kognitiboen** garapenean oinarritzea.
- Ikasleen eta ikasle-irakasle arteko interakzioa potentziatzea, **ikasgela testuinguru komunikatibo erreala** bilaka dadin.
- Proposatzen diren zereginetan ikasketa autonomoaz gain **ikasketa kooperatiboa** bideratzen duten ikasleen taldekatze motak potentziatzea.

4.-Hizkuntz arloko curriculum integratua

4.1.-Hizkuntz arloko *curriculum* diseinua

Deskribatutako hizkuntzaren kontzepzioak ez bakarrik metodologian, baizik eta *curriculum* mailako beste erabaki guztietan ere diseinu guztiz desberdina eragiten du hala nola, arloaren xedearen beraren definizioan, helburuen eta edukien aukeran eta sekuentzian, edo eta estrategia didaktikoetan.


Eskolaren ohiko hizkuntzaren trataeran, hizkuntzaren ikuspegi estrukturala nagusitu izan ohi da, hau da hizkuntza sistema formal gisa ikusi izan da, erregela eta elementu multzo abstraktu eta orokor bezala. Ondorioz, didaktikaren helburua sistema horren **ezagutza** izan da, hizkuntza bakoitzaren egitura, erregela eta osagaiak ezagutu ondoren, ezaguera hori aplikatuz hizkuntzaren jabetza lortuko delakoan. Beraz, eduki nagusiak bi ataletan banatu ohi izan dira: batetik hizkuntzaren gramatika, bai lanketa mailan (ortografia, morfosintaxia, hiztegiaren lanketa) bai eta analisi-kontzeptualizazio mailan, hau da, sistemaren erregela eta elementu ortografiko, morfologiko, sintaxiko, lexikoen identifikazioa eta izendapena. Bestetik literatura idatzia, hizkuntza jaso eta aberatsaren eredu gisa, idazle ospetsuen zati aukeratuak irakurri eta landuz eta idazlanak sortuz (ik. 4. irudia).



4. irudia

Gaur egungo ikuspegia, ordea, bestelakoa da. Hizkuntza arloaren xedea ikasleen komunikazio eta errepresentazio gaitasunak garatzea izango da, hizkuntzaren oinarriko trebezia nagusien (entzun, irakurri, hitz egin, idatzi) menperatzea lortuz, bizitzan planteatzen diren egoera desberdinetan eta asmo desberdinekin hizkuntza komunikazio tresna eragingarri gisa erabil dezaten.

Ondorioz, didaktikaren helburua giza behar guztietarako tresna horren **erabilera egokia** izango da, testuinguru eta zeregin desberdinetan erabiliz, eta erabilera horren inguruko hausnarketa eginez, hizkuntzaren jabetza lortuko da. Eduki nagusiak, beraz, erabilera sozial desberdinak izango dira (pertsonarteko harremanak, literatura, ikaskuntza, komunikabideak, instituzioekiko harremana) eta, erabilera horietatik sortutako testuen lanketan eta komunikazio ekintzaren inguruko hausnarketan gauzatuko dira testuinguruari atxikitako gramatikaren lanketa eta hizkuntz sistemaren kontzeptualizazioa (ik. 5. irudia).



5. irudia

Beraz, *curriculum*a diseinatzerakoan, eremu bakoitzeko testu mota desberdinak definitu eta haiei dagozkien ulermen eta ekoizpen prozedurak sekuentzializatuko dira. Horrekin batera, eta erabili beharreko trebeziaren arabera, testu mota bakoitzarekiko landu beharreko baliabide linguistikoak (testuinguruko eremukoak, eremu testualekoak eta perpausa eta hitzaren eremukoak) zehaztuko dira.

Marko komun honen barruan garatzen dira etapa eta zikloetako proiektu kurrikularrak, eta adin bakoitzari dagozkion hizkuntz beharren arabera definitu eta sekuentziatuko dira aipatutako erabilera eremu bakoitzeko testuak, bai eta marko honen barruan kokatzen dira *curriculum*eko hizkuntzak ere, erabilera eremu horiek hizkuntza bakoitzaren komunikazio testuinguruaren arabera aukeratuz eta sekuentziatuz.

4.2.-Hizkuntzen ikusmolde integratzailea: *curriculum* integratua.

Euskararen eta euskal kulturaren oinordetza ziurtatu eta indartzeko konpromisoa guregan dugula, ez dugu ahazten gaur egungo gizartearen bizitzeko erreferentzia-esparrua gizadi osora zabaltzen dela. Beraz, gure proiektuak euskaldun izaera abiapuntu izanik, kultura unibertsalaren aniztasun eta aberastasunaren partaide egin nahi ditu ikasleak. Hizkuntzari dagokionez, bi elementu horiekin jokatzeko lortu nahi da, euskarak bere hizkuntz eremuan behar duen garapen osoa lortzearekin batetik eta, bestetik, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestearekin. Gutxienez, kontaktuan dauden bi hizkuntza ofizialak (euskara-gaztelania; euskara-frantsesa) eta nazioarteko komunikaziorako beste hizkuntza bat izango ditugu langai ikastoletan.

Egoera honetan ez dago planteatzerik ikastolaren hizkuntz *curriculum*a hiru edo eta lau hizkuntza *curriculum* bakartuen batura bezala; hizkuntza eta komunikaziorako heziketa, *curriculum*eko hizkuntzak biltzen dituen Hizkuntza arlo bakarraren ikuspegitik soilik bidera daiteke.

Ikuspegi honek, hizkuntza bakoitzaren berezitasunak errespetatuz, guztientzat erreferentzi marko teoriko berdina, ikasketa linguistikoan parte hartzen duten mekanismoei buruzko ikuskera berdinean eta irizpide didaktiko komunetan oinarritutako metodologian ados jartzea eskatzen du. Ondorioz, Hizkuntza arloko *curriculum* integratua eraikitzeke oinarria hizkuntzaz dugun kontzepzio komuna da. Era berean, kontzepzio horrek berekin dakarren didaktika helburua eta horren ildo nagusiak, komunak dira ikastolan lantzen diren hizkuntza guztientzat.

Hizkuntza arlo integratua Cummins-en (1981) Hizkuntzen Interdependentzia printzipioan, Elkarmenpekoatasun Linguistikoaren printzipioan, ardatzen da. Honela adierazi ohi da formalki:

“Hx-eko irakaskuntza Hx-ean gaitasunak sustatzeko eragingarria den heinean, gaitasun hauen Hy-rekiko transferentzia gertatuko da, Hy-rekiko esposizioa (eskola edo ingurunean) eta Hy ikasteko motibazioa egokiak diren neurrian”

Edo beste hitz batzuetan esanda: hizkuntza batean lortutako hainbat gaitasun eta ezaguera, erabiltzen diren beste hizkuntzetara transferitu egiten dira, baldin eta beste hizkuntza horietan komunikazio aukerak eta motibazioa badira.

Hezkuntza eleaniztunak, eragingarritasunez jokatu nahi badu, transferentzia gaitasun horri ahalik eta etekin handiena atera beharko dio, baina transferentziak ez dira automatikoki gertatzen, bideratu eta eragin beharreko prozesuak dira. Horretarako ezinbestekoa zaigu irakatsi beharreko hizkuntza desberdinak integratuko dituen *curriculum* diseinu integratua egitea. *Curriculum*aren garapen bateratua honako puntuetan laburbildu dezakegu:

1. Hizkuntzen kontzepzio eta ikuspegi psiko-pedagogiko komuna. Aurreko ataletan definitu dugu ikuspegi komuna.
2. Oinarrizko marko metodologiko komuna. Marko malgua, hizkuntzen ezaugarrien arabera beharrezko estrategia didaktikoak bakoitzari egokitzuz osatzen dena.
3. Eleaniztasun ikuspegitik, hizkuntza-mailetako helburuak (orokorrak, bukaerakoak, didaktikoak) era integratuan definituta.
4. Hizkuntzekiko ditugun helburuei erantzuteko, eta bakoitzaren ezaugarri soziolinguistikoen arabera, hizkuntzen trataera orokorraren plangintza integratua, hizkuntza bakoitzarekin noiz hasi, bakoitzari zein ordu kopuru eskaini, eta bakoitza zertarako erabiliko dugun zehaztuz.

Ikastolen Elkartek Euskal Herriko egoera orokorrari, gehiengo baten errealitateari begira, diseinatutako plangintza eskaintzen du, ikastola bakoitzaren testuingurura egokitu egin beharko dena.

“Eleanitz” proiektuan gaur egun egindako aukera honako hau da (momentuz, planteamendu eleaniztun hau Hegoaldean bakarrik ezarri da.):

ETAPA	ADINA	EUSK.	CAST.	ENGLISH	FRANÇAIS
HAUR	1	3-4	X (Glob.)	X	
HEZKUNTZA	2	4-5	X (Glob.)	X	X (2.5 o.)
2. ZIKLOA	3	5-6	X (Glob.)	X	X (2.5 o.)
LEHEN	1	6-7	X (Glob.)	X	X (3 o.)
HEZKUNTZA	2	7-8	X (Glob.)	X	X (3 o.)
	3	8-9	X (3 o.)	X (3 o.)	X (3 o.)
	4	9-10	X (3 o.)	X (3 o.)	X (3 o.)
	5	10-11	X (3 o.)	X (3 o.)	X (3 o.)
	6	11-12	X (3 o.)	X (3 o.)	X (3 o.)
BIGARREN	1	12-13	X (3 o.)	X (3 o.)	X (4 o.)
HEZKUNTZA	2	13-14	X (3 o.)	X (3 o.)	X (4 o.)
	3	14-15	X (3 o.)	X (3 o.)	X (5. o) (Gizarte)
	4	15-16	X (3 o.)	X (3 o.)	X (5. o) (Gizarte)
HIZKUNTZEN %		Euskara 20,90 Euskaraz 54,29	8,86	12,12	3,80

Euskara eremu guztiak besarkatzen dituen tresna gisa integratzen da, hasierako prozesuan era globalizatuan, eta ondoren arlo izaera ere hartzen du.

Gaztelaniaren kasuan, 3. mailan hasten da haren ikasgai trataera, ingurunean jasotako ezagutza informalean oinarritutako erabilera formal eta akademikoetan zentratuz. Halere, aurreko mailetan gizartearekiko harremanetan sortutako gaztelaniazko erabilerak onartu eta era naturalean integratuko ditugu gelako jardueran eta hainbat kasutan, eremu oso euskaldunetan, testuinguruak gaztelaniaren jabekuntza informal hori ziurtatzen ez duenean, ikastolak aurretik erantzun beharko dio.

Ingelesaren kasuan, arlo trataera duen arren, ikuspegi interkurrikular batez garatzen da lana eta hainbat eta hainbat eduki ingelesez landuko dira, curriculumaren barrukoak zuzenean, edo eta harekin lotura hertsia dutenak eta osagarri izan daitezkeenak (hala nola, munduko herriak eta kulturak Lehen Hezkuntzan). Prozesua Bigarren Hezkuntzako azken zikloan bukatuko da arlo bat zuzenean ingelesez eskainiz (Gizarte arloa momentuz, 3 ordu), Ingeles arloarekin (2 ordu) koordinazioan garatuko dena.

Curriculumaren laugarren hizkuntza litzatekeen frantsesaren kasuan, Bigarren Hezkuntzan ezarriko da, hizkuntzari lehen hurbilpena egiteko asmoz.

5. Ikasketa edukiak aztertuz, hizkuntza guztietarako komunak diren edukiak eta hizkuntza bakoitzerako espezifikoak direnen definizioa. Eduki komunen artean hauek leudeke:
 - Komunikazio eremuen baitako hizkuntza erabilerak.
 - Ulermen eta ekoizpen trebezien lanketa.
 - Maila diskurtsibo eta testualeko edukiak: trebezia pragmatikoak, estrategikoak, testu egituraketakoak.
 - Eduki metalinguistikoak: hizkuntzaren azterketa eta hausnarketarako prozedurak, hizkuntzaren deskribapena eta kontzeptualizaziorako kontzeptuak. Hausnarketa interlinguistikoa, konparatiboa.
 - Jarrerak: kultur aniztasunarekin eta hizkuntz aniztasunarekin lotutakoak, eta norberaren hizkuntza ikasketa prozesuarekin lotutakoak.

6. Eduki komunen plangintza osagarria, hizkuntza guztiak kontuan hartuta edukiak aukeratu, banatu, eta sekuentziatuz egina. Eduki komunak sekuentzializatzeko unean, gure proiektuan honako irizpide orokorra erabili dugu. Hasiera batean, eduki berriak eskolako lehen hizkuntzan, euskaraz beraz, aurkeztu egiten dira eta ondoren beste hizkuntzetan aplikatu eta orokortu. Gaztelaniaren kasuan, hizkuntza maila nahiko garatua denez eta erabilera esparruak zabalak direnez, irizpide hau zuzenean islatu da material kurrikularretan. Ingelesaren edo eta bereziki frantsesaren erabilera eta ikasketa maila murriztagoak direnez, neurri txikiagoan egin izan da lotura. Bigarren Hezkuntzan, gaztelaniak eta euskarak maila antzekoa dutenez, lan osagarria planteatzen da, edukiak banatuz eta hizkuntza batean edo eta bestean aurkeztuz. Ingelesaren

kasuan, neurri handi batean ikasitakoaren aplikazio lana egingo da oraindik ere, nahiz eta osagarritasuna ere gerta daitekeen. Frantsesaren kasuan azkenik, hizkuntzaren hasierako urratsak egiten direnez, beste hizkuntzetan ikasitakoaren aplikazioa izango dugu bete-betean.

7. Ikasmaterialak hautatzerakoan ikuspegi komunei kasu eginez hautatzea. Ikasmaterialez ari garenean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari laguntzeko asmoz sortu diren era guztietako baliabideez ari gara: paperezko, ikus-entzunezko zein informatika bidez lorturiko euskarria duten testuliburu, lan-koaderno, irakurgai, entziklopedia, hiztegi, atlas, gai monografiko, etab.

Hartara, euskara ondo ikasteko, euskal kulturaren dimentsioa irakaskuntzan txertatzeko, eleaniztasun ikuspegi uztartua garabidean jartzeko nola baita ekimen osagarriak berrindartzeko ikasmaterialen bitartekotza garrantzi handikoa da. Hori horrela dela jakiteko, gogoratu besterik ez dago ikasleek ikasten denbora gehiena ikasmaterialak aurrean dituztela pasatzen dutela, edota *curriculum* ofizialek indarririk ez dutela ikasmaterialetan ez badira gauzatzen. Orain arte aipatu ditugun irizpideak alferrekoak dira, baldin eta materialak hautatzeko eta sortzeko orduan ikuskera zein irizpide komun eta uztartu baten ikuspegitik egiten ez badira. Hartara, ikasmaterialen eskaintza osoa eta orekatua izan dadin saiatu behar da EHIE, hau da, askotariko ikasmaterialak (ez bakarrik testuliburuak) eta euskarri guztietakoak behar dira.

8. **Ebaluazioari dagokionez**, ikaskuntzarekin-irakaskuntzarekin paraleloki planifikatzen, burutzen eta hizkuntzaren, kulturaren eta metodologiaren ikuspegiarekin koherentzian garatu behar den prozesua da. Bada, gure iritziz, Hizkuntz Proiektua egiteko proposatu ditugun oinarriak eta hizkuntzen ezaguera neurtzeko hezkuntza komunitatean erabiltzen ditugun ebaluazio irizpideak erkatu, ezinbestean uztartu eta komunean jarri behar ditugu.

Ingurumari horretan, ebaluazioa planifikatzerakoan, ebaluazioaren alderdi sumatiboa eta alderdi formatiboa (Scriven, 1967) hartu beharko ditugu kontuan:

- ⊗ **Ebaluazio sumatiboa.** Termino hau batez ere ikasleen ebaluazioaren gainean erabiltzen den arren, ebaluazio sumatiboa edozein dimentsio ebaluagarriari dagokio, esaterako, irakas metodoen arteko alderaketak egiten direnean, ikasmaterialak aukeratzen direnean, irakasle bat edo beste kontratatzen denean, ikasleak ezagutza mailaren arabera taldekatzen direnean, e.a. Ikasleen ebaluazioari dagokionez, ikasleek hezkuntza helburuek markatutako exigentzia maila lortu duten ala ez neurtzen du.

Amaierako ebaluazioa ere deitzen zaio, izan ere, prozesua laburra edo luzea izanda ere, gai baten, gai multzo baten, kurtso baten edo ziklo baten bukaeran egiten baita. Hartara, aditzera ematen du ea ikasle horiek segidan datozen edukiak bereganatzeko ezinbestekoa den gutxienezko maila eskuratu duten ala ez. Hala, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuez osatutako sorta kateatu batean, ebaluazio sumatiboak eta hasierako ebaluazioak bat egingo lukete.

Era berean, ebaluazio sumatiboak bi alde ditu: bata, soziologikoa, gizartearen aurrean galdaturiko maila erakusteko, egiaztatzeko, baliagarri suertatuko litzatekeena, eta, bigarrena, pedagogikoa, eduki berriak planifikatzeko orduan ezinbestean kontuan hartu beharko genukeena.

- ☒ **Ebaluazioaren bigarren eginkizuna formatiboa edo prozesukoa izatea da** eta, prozesua bera gidatzeko eta hobetzeko asmoz prozesuak irauten duen bitartean egiten denari deritza.

Ebaluazio formatiboa batez ere prozesuen ebaluazioan lantzen da (Casanova, 1992) eta prozesu horretan (ikaskuntza prozesua, funtzionamendu prozesua, e.a) datu zehatzak hartzea eskatzen du, edozein momentutan egoeraren berri zehatza edukitzeko eta, hori horrela, hobekuntzarako beharrezko diren erabakiak hartu ahal izateko. Beraz, ebaluazio formatiboa eta ebaluatzen ari den prozesua, parekoak eta aldiberekoak dira. Honela, gerta litekeen edozein disfuntzio konpontzeko aukera ematen du eta, orobat, aurkitutako alderdi positiboak, prozesu orokorrean eragina izan dezaten, bultzatzea bidera dezake.

Ikasleen ebaluazioari dagokionez, prozesua birbideratzeko argibide baliagarriak eskaintzen dituen neurrian, batez ere, eta, ebaluazioa irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren barruan egiten den heinean formatiboa izan daiteke soil-soilik. erabat uztartzen diren proba-ereduak zehaztu beharko dira.

5.-Hizkuntzaren zeharkakotasuna

5.1.-Eskola hizkuntza; hizkuntza akademikoaren lanketa.

Hizkuntza pentsamendua egituratzeko eta errealitatea barneratzeko tresna nagusia da. Hizkuntzaren garapen egokia esparru akademikoan arrakastaren giltzarria izango da neurri handi batean, eskolaren ikasketa beharrei erantzuteko abstrakzio eta konplexutasun handiko hizkuntza egitura eta trebeziak beharrezkoak baitira. Hizkuntza akademikoaren garapena bi bidetatik ziurtatu behar da:

5.1.1-Hizkuntza arloan eremu akademikoaren lanketa:

Ikusi dugun *curriculum* diseinuaren arabera, esparru akademikoko erabilerak Hizkuntza arloko eduki zuzenak bihurtu dira. Beraz, beste arloetarako beharrezkoak diren hizkuntza edukiak identifikatu eta landu egiten dira. Euskaraz bereziki, ikasketa horien funtzionalitatea garbia da, haien aplikazio eta orokortzea zuzenak baitira.

Eremu akademikoaren integrazioarako beste arrazoi nagusi bat dago, ikastolako beste hizkuntzen kasuan, eta bereziki ingelesaren kasuan, garrantzi berezia izango duena. Hizkuntza komunikazio egoera errealean erabiliz ikasten bada eta gure ikasleen hizkuntza horrekiko harremana eskola testuingurura mugatzen bada, ondorioz nahitaezkoa bihurtzen da elkarrekin bizi dugun komunikazio testuinguru erreal hori ikasketarako ardatz gisa erabiltzea eta, beraz, eskola-gaiak erabiltzea hizkuntz desberdinak ikasteko. Hizkuntzen trataerarako baliabide nagusia bihurtzen da horrela haren komunikazio testuinguru erreala: eskola eta haren zereginak.

Planteamendu honen barruan maila desberdineko proposamenak garatzen dira gure proiektu kurrikularrean. Gaztelaniaren kasuan, eremu akademikoak leku nagusia du curriculumean, hizkuntza jabekuntza orekatuaren oinarri baita, gizartean jasotako hizkuntza informalararen osagarri bezala. Ingelesaren kasuan, funtzionalitatea eta motibazioa bilatzeko erabiltzen da ikuspegi instrumentala, edukien bidezko hizkuntzaren irakaskuntzaren bidetik poliki-poliki hizkuntza horretan beste arlo baten lanketara iritsi arte.

5.1.2.Beste arloetan gaitasun kognitibo-linguistikoen garapena

Ezaguerak egituratzea ahalbidetzen duen tresna eragingarria da hizkuntza. Halaber, lengoaiak jadanik ezagutzen duguna antolatzen eta ordenatzen laguntzen digu, eta ezaguera berriak eskuratu ahala barneratzen ere laguntzen digu. Beraz, eremuetako edukiak irakatsi eta ikasi ahala eremu bakoitzaren hizkuntza irakasten/ikasten dihardugu, eta, alderantziz, hizkuntzak irakatsi/ikasi ahala, komunikazio ekintzak burutu ahala, kurrikuluan esku hartzen duten eremuetako edukiak garatu edo guretu egiten ditugu. Zoritzarrez, ikasketarekin lotutako hizkuntz trebeziak tresna nagusi dira, baina, gehienetan inplizituak geratzen dira; eskatu egiten dira, baina ez irakatsi. Informazioa biltzea, arretaz entzutea, irakurketa ulerkorra, ikasitakoaren adierazpena, oinarrizko konpetentziak dira arlo desberdinetatik elkarrekintzan garatu beharrekoak. Bada, ingurumari horretan, eskolaren *curriculum*aren eremu bakoitzaren zeharkako ardatz gisa hizkuntza dakusagu.

Hizkuntz arloak eremu akademikoko hizkuntzaren lanketa bere gain hartu duela esan dugu. Baina horren eragina mugatua izango da arloetako irakasleek ardura zuzena ere hartzen ez badute, hizkuntz eduki horiek arloetako ezaguerak eraikitzeke jardueretan bakarrik barneratuko baitira.

Hizkuntz proiektuaren zeregin nagusi bat izango da, besteak beste, esparru akademikoaren gaitasun kognitibo-linguistikoen lanketarako arlo guztiak bilduko dituen plangintza koordinatua bideratzea.

5.2.-Gelaz kanpoko komunikazio eremuei erantzuna

Ikastolaren ikuspegitik hezkuntza orokorra komunitatearen elkarrekintzan oinarrituta dago. Umearen hezkuntza prozesuan komunitate osoaren inplikazioa eta partaidetza bultzatu nahi du Ikastolak. Komunitateko kide guztiak (familia, haurra, irakasleak eta baita ikastolako beste langileak ere), bakoitza bere esparruan eta unean, hezkuntza prozesuaren eragile dira. Hizkuntzaren jabetze prozesuan ere elkarrekintzaren printzipio hau aplikatzen dugula ikusi da aurretik eta partaidetzaren kontzeptuak garrantzi berezia hartzen du hizkuntza egoera gutxitu batean, kasurako euskaran.

Komunikazioak erreala izan behar badu ikasketa eragingarria bideratzeko, hainbat eremutan gela barruko lana oso mugatua gelditzen da. Pertsonarteko esparru informalean bereziki, irakasleak bideratu dezakeen hizkuntz erabilera artifiziale eta antzua gerta baitaiteke. Jabetze maila egokia gerta dadin berezko esparruetan eragin beharko dugu. Hartara, Hizkuntz Proiektu integral baten beharra, ikastola eta bere ingurune hurbila bilduko dituen eta gelaz kanpoko esparru sozial horietan eragiteko estrategiak (Euskaraz Bizi eta beste proiektu osagarriak) koordinatu eta era koherentean diseinatzeko bidea emango duena.

VI.- IKASTOLA BAKOITZAK BERE HIZKUNTZ PROIEKTUA DEFINITZEKO GIDA

1.-Hizkuntzekiko esku hartze eremuak


Orain artean aipatutakoak gogoan izanik, Hizkuntz proiektua garatzeko honako pausoak egin beharko dira:

- Hizkuntzaren erabilera eremu desberdinetan egiten den hizkuntzen erabilera eta trataeraren diagnostikoa egitea.
- Helburuen lorpenerako beharrak antzematea
- Beharrei erantzuteko lan estrategiak eta plangintza zehatzak definitzea.

Horretan laguntzeko, ikastolako komunikazio testuinguruan hizkuntzen gain eragina duten eremuen sailkapen eredu bat eskaintzen dugu. Hizkuntzen erabilpen eremu horiei *hizkuntzekiko esku hartze eremu* deitu diegu, haietako bakoitzean eragin behar baita, hizkuntz egoeraren hobekuntza gerta dadin. Nagusiki bi esku hartze eremu definitu ditugu:

- **Eremu pedagogikoa.** Ekintza pedagogikoarekin eta gela barruko interakzio didaktikoarekin erlazionatutako hizkuntz alderdiak biltzen dituena.
- **Eremu instituzionala.** Ikastolaren kudeaketa eta antolaketarekin eta interakzio orokorrarekin, hau da, gelaz kanpoko harremanekin nahiz ingurunearekikoekin, erlazionatutako hizkuntz alderdiak biltzen dituena.
(ik. 6. Irudia)

Eremu bakoitzak bere baitan dituen atal zehatzetan egituratuko da Hizkuntz proiektuaren edukia (ik. 2. eranskina-7. irudia).



2.-Hizkuntzen erabileraren eta trataeraren diagnostikoa

Edozein plangintza diseinatu aurretik funtsezkoa da errealitatea ahalik eta ondoen ezagutzea. Egoeraren diagnostikoa egiteko honako erreferentziak har daitezke kontuan:

- Ikastola bakoitzak bere Hezkuntza Proiektuan eginiko inguruneari buruzko analisiaren emaitzak.
- Ikastola bakoitzak bere Hezkuntza Proiektuan definitutako hizkuntzen trataera orokorra: ikastolan erabili eta lantzen den hizkuntza bakoitzaren lehentasunak eta funtzioak.
- Ikastolako hainbat esparrutan (barruko nahiz kanpoko harremanetan) gertatzen den hizkuntza erabilera.
- Ikastolan lantzen diren hizkuntzen trataeraren (hizkuntza arloan nahiz beste arloetan) deskripzioa.

3.-Beharrak antzematea eta lan estrategiak definitzea

Diagnostikoaren emaitzak ezaguturik, Hizkuntz Proiektuak markatutako helburuak lortu ahal izateko dauden gabeziak identifikatu behar dira. Guztiei aldi berean erantzun egokia ematea zaila izango denez, ikastolak bere lehentasunak finkatu beharko ditu.

Egindako diagnostikoaren eta antzemandako beharren arabera, hizkuntzen garapenean eta bereziki euskararen garapen eta normalkuntzan eragin dezaketen estrategiak definitu beharko dira, beti lehentasunak markatuz.

Horretan laguntzeko, ondorengo puntuetan eskaintzen dugu hizkuntzen esku hartze eremu bakoitzaren deskribapena (ikus 7. irudia) eta haietako bakoitzari atxikitako zeregin proposamen multzo bat.

3.1.-Eremu pedagogikoa

Eremu pedagogikoak bi azpi eremu biltzen ditu bere baitan. Alde batetik, gestio pedagogikoari dagokiona, non hizkuntzen berezko *curriculum*a eta haien trataera instrumentala definitzen den. Bestetik, interakzio didaktikoari dagokiona, non gela barruko harreman sareen hizkuntz kalitatea bermatzen den.

3.1.1.-Kudeaketa pedagogikoa

A.-Curriculum proiektua

Euskal Herriko Ikastolen Elkartek diseinatutako Proiektu Kurrikularrean oinarrituta, honako orientabideak ematen dira:

A.1.-Hizkuntz arloko *curriculum* integratua.

Hizkuntz arloko *curriculum* integratua sortzeko lehen pausoa, hizkuntza guztien arteko Departamentu integratua sortzea da. Departamentu horrek honako aspektuak aztertu eta adostu beharko ditu:

- ☒ **Arloaren kontzepzioa eta xedea:** dokumentu honetan jasotako irizpideei jarraiki, hizkuntzaren kontzepzioa, haren didaktikaren xedea eta hizkuntzen trataerarako ikuspegia. Halaber, kultur edukirik gabeko hizkuntzarik ez dagoenez, euskararen trataera euskal kulturaren errotzeko oinarritzko kultur edukien aukeraketa..
 - ☒ **Ardatz metodologikoak:** Ikastola bakoitzak hizkuntzen *curriculum* zehaztapenak egiterakoan bakoitzarekiko estrategia didaktiko propioak garatu beharko ditu norberaren testuingurura eta beharretara egokituz baina beti dokumentu honetan aipatutako ardatz metodologikoak ezinbesteko erreferentzia izanik.
- ➔ Hartara metodologiari dagokionez, zereginak ondokoak dirateke:
- Adosturiko arlorako markoaren baitan, ekintza didaktikoa, nagusiki, testu pedagogian oinarritzearen egokitasuna aztertu eta erabaki komunak hartu.
 - Komunikazio gune desberdinetan ikasleen komunikazio beharrak zein diren definitu, eta haiek bideratzeko egokienak diren estrategia didaktikoak planifikatu.

- Aniztasunaren trataerarako irizpideak eztabaidatu eta adostasunez finkatu.
- Ikasketa autonomoaren eta kooperatiboaren arteko orekari eutsiz, gela barruan ikasleen taldekatzeari buruzko jarraibideak finkatu.
- Irakaslearen rola zehaztu, irakasten duena izatetik ikasten laguntzen duena izatera aldatzeko.
- Gela barruan ikasleen arteko interakzioa potentziatzen duten ekimenak planifikatu.
- Zeregin komunikatiboen arabera espazioen aukeraketa eta erabilpena finkatu: ikasgelak, liburutegia, ordenagailu-gela, ikus-entzunezkoen gela, antzokia, Ikastolatik kanpoko espazioak (kiroldegia, kultur etxea, museoak...) etab.

- ☒ **Helburu eta edukien arteko osagarritasuna:** hizkuntz helburuak, gaitasun mailan formulatzen direnez, hizkuntza guztietarako antzeko erreferentziak ematen dituzte. Hala ere, tokian tokiko testuinguru linguistikoari egokitzuz berridatzi eta sekuentzializatu beharko dira, beti hizkuntzaren kontzeptioarekin eta arloaren helburu nagusiarekin koherentzia mantenduz.

Edukiak aukeratzekoan, lehen aipatutako markoaren barruan hizkuntza bakoitzerako erabilera garrantzitsuenak eta haietan sortutako testu mota nagusiak hautatu eta sekuentzializatu beharko dira. Ondoren, testu horien gaineko ulermen /sorkuntza/hausnarketarako hizkuntz edukiak aztertu, hizkuntza guztientzat komunak eta hizkuntza bakoitzarentzat espezifikokoak direnak bereizi eta komunak diren horiek *curriculumeko* lau hizkuntzetan elkarrekin planteatu. Hala, ikasitakoa sendotu eta orokortu eta ikasleek aurretik dakitena erabiliz alferrikako errepikapena saihestea lortuko da.

Horrekin batera, hizkuntzen aniztasunaren balorazioa eta nork berearekiko konpromisoa bideratuko duen ezagutza soziolinguistikoa hizkuntza guztietan landu beharko da.

Edukien banaketa eta sekuentzializazioa egiteko unean honako irizpidez baliatuko gara: ikasketa berriak eskolaren lehen hizkuntzan aurkeztuko ditugu eta horien aplikazioa eta orokortzea beste hizkuntzetan egingo dugu. Printzipio hori garrantzi handikoa litzateke hasierako prozesuan batez ere. Gerora beste faktore hauek kontuan hartu beharko dira:

- Hizkuntza bakoitzaren lekua eta giza-funtzioak bai eskola barruan eta bai inguruko gizartean ere. Hizkuntza batean era naturalean gertatzen den erabilera, hizkuntza horretan landuko genuke.
- Hizkuntza bakoitzaren ezaugarriek sortutako beharrei hizkuntza horretan erantzun. Hizkuntzaren hausnarketa eta kontzeptualizazio beharrak handiagoak gerta daitezke hirugarren hizkuntzan adibidez. Elkarrekin erabaki beharko da zer den hizkuntza guztietan beharrezkoa eta, beraz, lehen

hizkuntzan integratu beharrekoa, eta zer den hizkuntza horretan zuzenean eskainiko dena.

→ Zereginak:

a) *Curriculumaren* bigarren zehaztapen mailari dagokionez helburuak:

- Hizkuntza desberdinetako helburu orokorrak aztertu eta kontrastatu.
- Ikastolen Elkartek proposatutako helburuen funtzio bera duten arloko konstanteak erabiliz gero, hizkuntza desberdinetakoak kontrastatu eta formulazio berera ekarri.
- Adosturiko arlorako markoaren baitan, hizkuntza desberdinetako kurtsu, ziklo eta etapako amaierako helburuak konparatu, haien egokitasuna aztertu eta beharrezko zuzenketa egin.

b) *Curriculumaren* hirugarren zehaztapen mailari dagokionez:

- Helburu didaktikoekiko marko bera hizkuntza guztietarako definitu.
- Marko horren barruan eta elkarrekiko interdependentzia kontuan izanik, hizkuntza bakoitzaren egokitu eta sekuentzializatu.

c) **Edukiak:** hizkuntza bakoitzeko etapa, ziklo eta kurtsoko eduki espezifikoak hautatu eta sekuentziatu, edukien osagarritasuna ziurtatuz honako aspektuetan:

- **Erabilera esparruak:** Erabilera eremu bakoitzean ikasleek hizkuntza bakoitzarekiko adierazten duten jabeakunza eta haien komunikazio beharrak kontuan izanik, etapa eta ziklo bakoitzean zein erabilpen komunikatibo, horrekin loturiko zein testu mota, eta zein hizkuntzatan landu.
- **Diskurtso eta testu mailako ezagutza:** Egoera komunikatibo eta testu moten lanketan, hizkuntza bakoitzak bere baliabide formal espezifikoak baditu ere, beste maila batzuetan hainbat eduki komunak dira hizkuntza guztietan: testua komunikazio testuingurura egokitzea, testu mota bakoitzaren informazioaren egituraketa, e.a.
- **Trebezien trataera:** Ulermen (Irakurmena-entzumena) estrategiak, testuen ekoizpenerako (idazmena, mintzamina) estrategiak. Adibidez, irakurketa-idazketa noiz eta nola landu, ideia nagusiaren identifikazioa, laburpena...
- **Hizkuntzaren hausnarketa:** Gertaera linguistikoen inguruko gogoetarako prozedurak. Hizkuntzaren hausnarketa zein helbururekin egin, adin bakoitzean zer eta nola, zein dira estrategia metodologiko komunak.
- **Hizkuntzaren kontzeptualizazioa:** Metahizkuntza. Zein kontzeptu gramatikal erabili adin bakoitzean, zein testuingurutan, nola definitu, zein hizkuntzetan aurkeztu apendizai berri gisa.
- **Hizkuntzekiko jarrerak eta balioak:** Euskararekiko kontzientzia eta konpromisoa, hizkuntzen balio soziokulturala, aniztasunaren balorazioa eta begirunea, ikasketaren inguruko jarrerak: errakuntzen onarpen positiboa, saiatzearen garrantzia, eta abar.

- ⊗ **Ebaluazioa:** Ebaluazioak helburuetan azaldutako gaitasunak eta haiei atxikitako edukiak baloratzeko baliagarria izan behar du hizkuntza guztietan, beraz:
 - Zikloko eta etapako amaierako helburuak era integratuan adostu.
 - Hizkuntza bakoitzean definitutako ebaluazio tresnen egokitasuna kontrastatu eta haiek sortzeko marko komuna finkatu.

- ⊗ **Gelako programazioa eta *curriculum* egokitzapenak:** Hirugarren zehaztapen mailarako hartutako erabakiek (helburu didaktiko, eduki, baliabide, sekuentzia didaktiko, ebaluazio tresna, etab.) bat etorri behar dute 2. zehaztapen mailan hartutakoekin, beraz:
 - Hizkuntza desberdineko irakasleen arteko oinarrizko koordinazioa eta osagarritasuna ziurtatu hirugarren zehaztapen mailari dagozkion erabaki guztietan.
 - Ohiko adinez kanpo ikastolaratzen diren ikasleen trataerarako estrategiak eta baliabideak elkarrekin planifikatu.

- ⊗ **Testu liburu eta bestelako baliabide didaktikoen aukeraketa:** hizkuntzetarako baliabide didaktikoen hautaketarako eta haien erabilera arduratsua egiteko erreferente nagusia arloaren didaktikarako hautatutako ikuspegia eta planteamendu metodologikoa izango dira, beraz:
 - Adosturiko arlorako markoaren baitan, testu liburuen hautaketa Hizkuntz Departamentu integratuan adostu.
 - Bestelako baliabide didaktikoen (inprimatutakoak, ikus-entzunezkoak, informatikoak, etab.) hautaketa eta erabilera adostu.

A.2.-Beste arloetako *curriculumak*

- ⊗ **Hizkuntzen trataera instrumentala:** lehenago adierazi bezala, hizkuntza komunikazio eta irudikapenerako tresna nagusia bada, zehar lerroaren trataera beharko du, edozein arlotan integratu beharreko eduki bihurtuz; hartara, edozein irakasle gertatzen da eredu emaile, erabilera bultzatzaile, ebaluatzaile, hizkuntza irakasle.

Bestalde, lehen aipatu bezala, hizkuntza arloaren ikuskerak aldaketa sakona izan du. Hizkuntza ez da ikasleek barneratu behar duten ezagutza multzoa, edo hobeto esanda, ez da hori soilik, baizik eta batez ere komunikatzeko tresna da, hizkuntza erabiliz ikasten baita. Ikasketa objektua ez da teoria linguistikoa edo eta sistemaren deskribapena, hizkuntzaren askotariko erabilerak baizik. Ondorioz, hizkuntza arloaren markoak komunikazio eremu desberdinak kontuan hartzen ditu.

Azken batean, ikasleek euskara erabiltzeko gaitasuna bereganatuko dute, ikasten ari direna komunikazio eremu desberdinetan erabiltzeko aukerak dituzten neurri horretan. Beraz, aurrez aipatutako hizkuntzekiko esku hartze eremu guztien gain eragiten du arloan egindakoak, eta aldi berean, arloz kanpoko hizkuntzaren sendotze ekimenek eragingo dute arloaren helburuaren lorpenean. 8. irudian ikus daiteke Hizkuntza arloa eta beste esku hartze eremuen arteko erlazioa:

HIZKUNTZA ARLO ETA ESKU HARTZE EREMUEN ARTEKO LOTURA

HIZKUNTZ ARLOKO CURRÍCULUMA: EDUKI BLOKEAK		Esku hartze EREMUAK				
		BESTE ARLOAK		IKASTOLA OROKORREAN		FAMILIA ETA INGURUA
		KUDEAKETA PEDAGOGIKOA	INTERAKZIO DIDAKTIKOA	ANTOLAKETA	INTERAKZIOA	
ERABILPEN EREMUAK	HIZKUNTZA GIZA HARREMANETAN	X	X	X	X	X
	HIZKUNTZA IKASKUNTZAN	X	X			X
	HIZKUNTZA LITERATURAN				X	X
	HIZKUNTZA KOMUNIKABIDEBETAN	X			X	X
HIZTUNAK ETA HIZKUNTZAK		X	X	X	X	X

8. irudia

Lotura honek hiru eremutan du garrantzia berezia:

- *Harremanak eremuan*, pertsonarteko harremanetarako trebeziak lantzen dira. Gelaz kanpoko testuinguru desberdinetan sortutako harremanetarako hizkuntza arloko eduki bihurtzen da. Aldi berean, harremanak euskaraz gauzatu daitezten sortutako ekimen guztiek arloaren garapenean eragin zuzena izango dute.
- *Ikaskuntza eremuan*, ahozkoa eta idatzia edozein irakas-ikaste prozesutan oinarritzko euskarri gisa ikusten da. Ondorioz, informazioa lortzeko, tratatzeko, gordetzeko eta erabiltzeko prozedurak hizkuntza arloko garrantzizko eduki bihurtzen dira. Aldi berean, beste arloetan aplikatu eta orokortu beharko dira prozedura horiek, hizkuntza arloan landutakoa barneratzea nahi bada.
- *“Hizkuntza eta hiztunak” eduki multzoan* soziolinguistika mailako edukiak eta haiei lotutako hizkuntzekiko jarrera eta balioak lantzen dira. Eduki horiek hizkuntzen erabilera guztiak baldintzatzen dituzte eta beraz, komunikazio egoera eta esparru guztietan kontuan hartu eta landu beharreko edukiak dira.

→ Zereginak:

- Beste arloetako Departamentuekin koordinazioa bideratu, helburu eta edukien arteko lotura ziurtatzeko:
 - Hizkuntza arloko “ikaskuntza” erabilpen eremuaren eta beste arloen beharren koordinazioa.
 - Hizkuntza arloan “ikaskuntza” eremuan ikasitakoa beste arloetan kontuan hartzea, aplikatzea eta orokortzea. Adibidez, ideia nagusien trataera, laburpenaren trataera, eztabaidaren trataera, etab.
 - Hizkuntza arloko “pertsonarteko harremanak” erabilpen eremua eta arloz kanpoko harremanei dagozkien beharrak definitzea, horiei erantzuteko estrategiak elkarrekin erabakitzea eta bideratzea.
- Hizkuntza arloko “hizkuntza eta hiztunak” eduki multzoan integratutako jarrera eta balioak adostea eta beste arloetan orokortzea. Halaber, euskararen inguruko beste ekimen, kanpaina eta abarrak hizkuntz arloarekin era integratuan planteatzea.

☒ **Globalizazioa:** Gaur egungo hizkuntzaren trataera komunikatiiboak eragin zuzena du arloen garapenean. Hizkuntza gauzak egiteko tresna gisa erabiliz lantzen dugunez, eta “gauza” horiek, hein handi batean eskolako gauzak izango direnez, beste arloetako hainbat eta hainbat eduki hizkuntza desberdinen lan tresna bihurtzen dira. Bestalde, *curriculumaren* hiru/lau hizkuntzek eskola denboraren zati handi bat hartzen dutela kontuan harturik, denbora horren zati bat behintzat arlo desberdinetako edukiak lantzeko aprobetxatu daiteke maila batean edo bestean. Planteamendu honen maila gorenean, arloren bat zuzenean euskara ez den beste hizkuntza batean eskaintzea erabaki daiteke, hala hizkuntza horren jabeak eta arloaren garapena elkartuz.

→ Zereginak:

- Beste Departamentuekin koordinatuz, hizkuntza desberdinetan proposatutako diren beste arlotako gaiak eta edukiak finkatu.
- Beste Departamentuekin koordinatuz, arlo bakoitzari egokien dagozkion curriculumaren euskal dimentsioaren esparruak zehaztu eta haien lanketa planifikatu.
- Hizkuntza arloan egokitasunez landu daitezkeen Zehar Lerroak zehaztu eta emango zaien trataera adostu eta beste Departamentuekin koordinatu.
- Ikasketa-hizkuntza gisa, euskaraz gain, beste hizkuntzen beharra eta egokitasuna aztertu. Beste hizkuntza bat erabiltzea erabakiko balitz, haren trataerarako baldintzak zehaztu beharko dira: zein arlo aukeratuko den, arloren bat bi hizkuntzatan eskainiko den, etab.

B.-Proiektu osagarriak

- ☒ **Euskara eta Euskal Kultura:** euskararen erabilera eta harekiko motibaziorako eta euskal kulturaren ezagutza eta transmisiorako zereginetan, ikastolako taldeek elkarlanean bilduko dituzten proiektu osagarriak beharrezkoak lirateke.

→ Zereginak:

- Euskararen aldeko motibazioa bultzatzeko ekintza bereziak antolatu: lehiaketak, kanpainak, ekimen trukaketak, jaialdiak, e.a.
- Euskal kultura ezagutzeko eta bizitzeko ekimenak antolatu: antzerkiak, tradiziozko jaiak, folklorea, literatur egunak, e.a.

- ☒ **Zehar lerroak:** zehar lerroen inguruan ikastolan egiten diren proiektuetan hizkuntz erabilera orokorra kontuan hartu beharko litzateke.

→ Zereginak:

- Hizkuntzen jarduera eremuak zehaztu
- Euskararen erabilpena eta kalitatea ziurtatzeko bideak zehaztu.

C.-Irakasleen prestakuntza

Irakasleen prestakuntzan bi esparru aurreikusi daitezke:

- Irakasle guztientzako euskara hobetu eta gaurkotzeko prestakuntza planifikatu.
- Hizkuntzen arloko irakasleentzako hiru motatako prestakuntza planifikatu:
 - Teoria linguistikoen eguneratzea: orokorra, oinarriak, e.a..
 - Metodologia eguneratzea: orokorra eta espezifikoa.
 - Hizkuntza maila jasotzeko egitarauak.

3.1.2.-Interakzio didaktikoa

Ikastolako komunikazio testuinguruaren barruan, gela barruko interakzioa da hizkuntzaren jabekuntza eta garapenerako esparru garrantzitsuenetako bat. Alde batetik, bertan komunikazio behar errealak sortzen direlako eta, ondorioz, egiten den hizkuntz erabilera funtzionala eta motibagarria gertatzen delako. Bestetik, testuingurua kontrolatua denez, hizkuntz erabilera hori irakasleak bideratu eta optimizatu dezakeelako.

Hori horrela izanik, ezinbestekoa da gela barruko interakzioaren balorazioa egitea eta, horren ondorioz, hura hobetuko duten estrategiak eta baliabideak planifikatzea. Honako hauek lirateke aztertu beharreko eremuak:

A.-Harremanak

☒ Arlo bakoitzerako harreman hizkuntza.

→ Zereginak:

- Arlo bakoitzeko harreman hizkuntza definitu:
 - Ikastolan eskainitako hizkuntza bakoitzaren irakas-ikaskuntza prozesutik eratorritako harremanak dagokion hizkuntzan gauzatzea bideratu beharko litzateke.
 - Euskaraz gaineko hizkuntzak beste arlotako ikasketa-hizkuntza gisa erabiliko diren erabaki beharko litzateke.
 - Testuinguru eta komunikazio egoeraren arabera hizkuntz aldaera egokia (tokian tokiko azpi-euskalkia, euskalki *standarda* edo eta batua) hautatu eta bakoitzean trebatzeko baliabideak finkatu.

☒ Irakaslearen hizkuntz eredua eta hizkuntzarekiko jarrera: ikastolako arlo akademikoari dagokion esparruan irakasleak dira eragilerik sendoenak. Hori dela eta, beraiei dagokie, euskara eta euskaraz irakasteaz gain, euskararen erabilera sustatzearen eta hitzez zein ekintzaz euskara prestigiatzearen ardura nagusia.

Irakaslearena ikaslearentzat hizkuntz eredu nagusia izanik, ezinbestekoa da bera kalitatezkoa izatea eta, bestalde, euskararekiko balorazio positiboa ikasleengan garatu nahi bada, horretan ere irakaslearen eredua garrantzitsua da: norberak ez duena, ezin baitie besteei transmititu, beraz, irakaslearen hizkuntz maila, eredua eta hizkuntzarekiko jarrera baikorra ziurtatu. Baloratu ondoren, beharra sumatuz gero, hizkuntz prestakuntza espezifikoa beharko litzateke

☒ Irakasle-ikasleen arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea: ohiko gela barruko interakzioan, irakaslea izan ohi da protagonista eta hizkuntz erabiltzailea. Tradizio hori apurtu eta benetako elkarrizketa gauzatzea eta komunikazio joan-etorri hori kalitatezkoa izatea bideratuko duen planteamendu didaktikoa behar da. Horretarako:

- Irakasle bakoitza eta bere ikasleen arteko interakzioaren ezaugarriak aztertu.
- Balorazio horren ondorioz, egoera aldaraziko duten estrategia didaktikoak definitu eta aplikatu.

☒ Ikasleen arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea: gela barruan komunikazio aukerak zabaltzeko bitarteko garrantzitsua da ikasleen arteko interakzioa. Horretarako ikasleen arteko euskararen erabilera eta haren kalitatea ziurtatu beharko da:

- Ikasketa kooperatiboa bideratzen duten ikasleen taldekatze motak potentziatuz.
- Talde mailako interakzioetan aurreikusi edo eta behatzen diren ikasleen hizkuntz baliabide beharrak definitu eta behar horiei era egituratuan erantzun, erregistro desberdinen ereduak bereziki ziurtatuz.
- Talde mailako interakzioetan euskara erabil dezaten motibazioa indartzeko bitartekoak ezarriz (irteerak, kanpainak, etab.)

B.-Baliabideak:

- ☒ **Gelaren girotzea (horma-irudiak, kartelak, etab.):** gelaren girotzean (horma-irudiak, kartelak, etab.) euskararekiko motibazioa eta norbanakoaren haren kontzientzia potentziatu, beti ikasleek erabilitako hizkuntza desberdinen presentzia ziurtatuz.
- ☒ **Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza:** informazio iturriak eta bestelako baliabideak hautatu:
 - Euskarazko informazio iturrien bilduma ahalik eta aberatsena eta eguneratua (teknologia berriak barne) bideratu.
 - Langai diren gainerako hizkuntzetarako oinarritzko baliabide eta informazio iturriak ziurtatu.

3.2.-Eremu instituzionala

Badira erabaki batzuk euskararen normalizazioan murgildurik dagoen edozein ikastolak hartu behar dituenak. Aipatu erabakiok ikasleen hizkuntza portaeran zuzen-zuzen eragiten ez badute ere, eremu instituzional horri hizkuntzarekiko identifikazio eta koherentzia ezartzen diote:

3.2.1.-Ikastolako antolaketa

- ☒ **Gobernu eta funtzionamendu organoak:** egin beharrekoak.
 - Aginte Organo eta Estamentu desberdinen barne harremanetarako hizkuntza (aho zein idatzizkoa) zein den zehaztu, euskarak ahalik eta leku gehien eduki dezan bideratuz.
 - Bai ikastolan bertan bideratzen diren informazio eta harreman guztiei, bai kanpotik datozkionei zein hizkuntz trataera emango zaien arautu, euskararen normalizazio legeari ekinez.
- ☒ **Ekonomia, administrazioa eta dokumentazioa:** atal honetan, ekonomia eta administrazio arloen hizkuntza erabilerak eta haietan sortzen den dokumentazioaren hizkuntza trataera definituko da. Esparru horretan euskararen erabilera bermatzeko erabakiak hartu beharko dira honako eremuetan:

- Alderdi ekonomikoari dagozkion dokumentazio eta bitartekoan hizkuntza finkatu (aurrekontuak, balantzeak, taloiak, ordenagailu programak, etab.).
- Antolamenduzko eta pedagogiazko dokumentazioan erabiliko den/diren hizkuntza finkatu.
- Ekonomia eta administrazio arloen barne harremanetarako hizkuntza (ahozkoa zein idatzizkoa) finkatu.

⊗ **Pertsonalaren hizkuntza profila:** ikastolako langileriaren hizkuntz profila/k definitu eta euskararen ezagutza eta erabilera bermatzeko baliabideak ipini.

⊗ **Espazioaren banaketa eta trataera:** esparru fisikoari dagokionez, ikastola-egoitzak dituen espazioak definitzerakoan, haietako bakoitzean jarduera eremuak definitu eta kontuan hartu beharko dira. Hala, besteren artean, espazio bakoitzeko hizkuntza identifikazio eta erabilera zehaztu behar da: lehen hizkuntzaren (euskara) eta beste hizkuntzen (gaztelania/frantsesa, ingelesa...) erabilerarako guneak finkatuz.

Ikastolari dagokio ikaslea euskaraz bizi dadin espazio fisiko horietako bakoitza euskararen mikro-espazio bihurtzea: ikasgelak, gela espezifikoa, jolastokia, autobusa, jantokia, etab.

→ Zereginak:

- Ikastolako espazio bakoitzeko hizkuntz erabilera identifikatu.
- Euskararen erabilera bermatzeko bitartekoak ziurtatu.

⊗ **Ikastetxeko errotulazio eta informazio guneak:** hizkuntza ingurunea (hizkuntz paisaia) euskalduna izateko beharrezkoak diren neurriak eta baliabideak ezarri behar dira, hala nola, errotulazioan, karteletan, iragarpen oholetan, e.a. Hala, ikastolaz kanpoko nahiz barruko hormek eta pasabideek euskaraz bizitzeko giroa bideratuko lukete, ikasleak horretara bultzatuz.

3.2.2.-Interakzioa

A.-Ikastola orokorrean

Ikastola ez da soilik ikasgela, ikastolaren heziketa ardurak ez dira arlo akademiko hutsera mugatu behar. Izan ere, euskararen normalizazioan aurrerapausoak eman ahal izateko, ezinbesteko da, arlo akademikoaz gain, ikaslearen beste bizitza esparruetan eragitea, haietan ohiko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bitartekoak jarriz eta sistematikotasunez ekinez. Bide horretatik, alegia, eremu instituzionala eskola esparru gisa begiztatuz, eta inolaz ez esparru hauek saihestuz, lor dezakegu astiro-astiro euskararekiko atxikimendua sendotzea eta ondorioz euskararen erabileran aurrerapenak nabaritzea.

Ez dugu ahaztu behar, gainera, erdal giro gordinean bizi diren ikasleek kultura eta aisialdiarekin zerikusia duten bizitza esparruak gaztelaniaz nahiz frantsesez aurkitu ohi dituztela. Horren aurrean, ikastolek orokorrean eta egoera horretan dagoen ikastola jakin bakoitzak beharrezko izango du, eskolan egindako euskararen normalkuntzaren aldeko lanek erdibidean edo indar gabe gera ez daitezen, aipatutako esparru horiek apurka-apurka ikastolaren eraginpe zuzenean kokatzea, hots, ikasleen hizkuntza beharrei erantzungo dion eta euskararen mikroespazio izango den egitura eta antolagune bilakatzea ikastola. Beraz, ikastolari dagokio:

- Orokorrean, ondoren aipatuko diren bizitza esparruetan sortzen diren egoera komunikatiboetan euskara erabil ahal izateko beharrezko den aurre-lanketa era antolatuan egitea, hizkuntz erregistro desberdinen eskaintza, ezagutza eta erabilera bermatuz.
- Esparru horietako hizkuntz paisaia euskalduntzea.
- Giza baliabide ororen hizkuntzaren ezaguera, erabilera eta jarrera zaintzea eta lantzea, ikasleen aurrean euskararen eredu eta euskararen aldeko erreferente izan daitezen.

Honakoak lirateke zereginak oinarrizko esparruetan:

- ⊗ **Jolasaldia:** jolaslekuetan, eskola ordu barnean, ikasleen euskarazko komunikazioa bideratu eta garatuko duten jardura gidatu desberdinak eratu.
- ⊗ **Jantokia, garraioa eta zerbitzuak:** euskararen presentzia eta erabilera bermatu, antolaketa egokiz eta beharrezko baliabideak ezarriz.
- ⊗ **Eskolaz kanpoko ekintzak**
 - Ikaslearen bizitzan kultura eta aisialdi esparruetan sortzen diren beharrak kontuan harturik, eta are gehiago inguru erdaldunetan, euskara eta euskal kulturaren inguruko ekimenak antolatzea.
 - Antolatutako ekimenetan euskararen erabilera lehentasunezko irizpidea izanik, haren erabilera eta prestigioa bermatzeko bitartekoak jartzea.
- ⊗ **Irakasleen hizkuntz erabilera eta kalitatea:** irakasleak dira ordutegi barruan euskararen erabilera sustatzen eta harekiko prestigioa nabarmentzen dutenak. Beraiek dira hizkuntz eredu eta motibazio eragile nagusiak, beraz, ikastolak bideratu beharko lituzke:
 - Irakasleak ikasleentzat euskararen eredu ona eta aberatsa izateko bitartekoak.
 - Irakasleak euskararen normalkuntzaren aldeko eragile izateko bideak.
 - Irakasleak, ahal den neurrian, lekuan lekuko aldaera, eta, orokorrean, harremanetarako hizkuntzaren erregistro eta hizkera bizia erabil dezaten bitartekoak (formakuntza barne).

- ⊗ **Gainerako giza-baliabideen hizkuntz erabilera eta kalitatea:** irakasleez gain, ikastolako funtzionamenduaren luze-zabalean, badira eragile gehiago, eta garrantzitsuak gainera: begiraleak (kirola, kultura, aisialdia, autobusa, jangela, e.a.), langileak (administraziokoak, atezaina, garbitzaileak, sukaldariak, e.a.) gurasoak, ikasle helduak, bisitariak, etab. Horien hizkuntz portaerak zerikusi handia du ikasleek izango duten hizkuntzarekiko jarrerarekin.

Ikastolaren egitekoa da horietako giza-baliabide bakoitza euskararen alde eragingo duen agente garrantzitsua izan dadin saiatzea eta horretarako behar diren bitartekoak ikastolako hezkuntza eta hizkuntz proiektuan aurreikustea.

→ Zereginak:

- Ikastolako esparru guztietan giza-baliabide desberdinen harremanetarako hizkuntz erabilera identifikatu eta zehaztea. Hala, besteak beste:
 - Euskalkien erabilera
 - Bigarren hizkuntzen erabilera
 - Ikastolak deitzen dituen bileretan erabiliko den hizkuntza
- Giza baliabide horiei guztiei euren hizkuntz portaerak duen garrantziaren berri emateko eta euskararekiko lankidetzara lortzen joateko bitartekoak (bilerak, harremanak...) zehaztu.
- Bitartekari heldu horien euskararen ezagutza eta kalitatezko erabilera lortzeko bitartekoak planifikatu.

B.-Familia

Ikaslearen inguruko harreman sareetatik (gurasoak, lagunak, aisialdi ekintzako lagun taldeak...), gizartean euskararen alde ari diren talde eta elkarteak alde batera utzi gabe, familia da ondorio nabarmenenak ezartzen dituen eragilea euskararen transmisioan.

Ikastolak era zuzenean jokatu nahi badu, beharrezkoa izango du gurasoen hizkuntz tipologia ondo zehazturik edukitzea, eta hartan oinarriturik tipologia bakoitzari dagozkion estrategia bereiztuak era sistematizatuan ezartzea. Ikaslea eskolaratu orduko, ikastolak ezagutu beharko luke aita, ama eta etxean bizi diren lagun guztien hizkuntz ezagutza eta erabilera zein den, ikastolarekiko harremanak zein hizkuntzatan nahi duten izatea, etab.

- ⊗ **Ikastola eta gurasoen arteko harremanak:** ikastola bakoitzak, duen hizkuntz errealitatearen arabera (guraso batzuk euskaldunak, besteak elebidunak eta azkenik, erdaldunak), harreman esparru honetarako hizkuntz erabilera zehaztu beharko du bere Hizkuntz Proiektuan.

→ Zereginak:

- Ikastolak gurasoekin izan ohi dituen harremanetan, ahozkoetan zein idatzizkoetan, euskararen eta erdararen erabilera zehaztea:
 - Euskaraz dakitenekin: euskara hutsean
 - Ez dakitenekin: idatzizkoak bi hizkuntzetan, eta, ahozkoak gaztelaniaz edo frantsesez.
- Ikastolak deitzen dituen batzar eta bileretako hizkuntz erabilera zehaztu eta finkatzea.
- Guraso eta irakasleen arteko ahozko harremanetarako hizkuntza identifikatzea.

⊗ **Familia barruko hizkuntz erabilera eta kalitatea:** ikaslearen hurbileko harreman-sarean (gurasoak, senideak, lagunak...) familia da euskararen transmisioan gehien eragiten duena. Bada, ikastolak, aztergai dugun ikuspuntutik begiratuta, era zuzenean jokatu nahi badu, beharrezko izango du jakitea:

- Ikaslearen hizkuntz errealitatea: ama hizkuntza edo jatorrizko hizkuntza euskara duen, erdara eta euskara dituen, ala erdara bakarrik duen.
- Gurasoen hizkuntza-tipologia: euskaldun aktiboak edo pasiboak diren, elebidunak diren ala erdaldunak diren. Eta horretan oinarrituta, tipologia bakoitzari dagozkion estrategia bereiztuak azartzea eta aplikatzen joatea. Hona zeregin proposamen batzuk:

→ Zereginak:

- **Euskaldun aktiboekin**
 - Gurasoen jokabide naturala txalotzeaz gain, euskararen normalkuntzarako jokabide horrek duen garrantzia azpimarratzea.
 - Euskararen kalitateak duen garrantzia kontuan hartuz, hala behar dutenei, eremu desberdinetan euskararen erabilera trebatzeko eta alfabetatzeko aukerak eskaini eta horretarako erraztasunak ematea.
 - Euskarazko kultura eta aisialdia eskaintzen ezagutza bideratzea.
 - Familietan lekuan lekuko euskalkiaren erabilera bultzatu eta txalotzea.
- **Euskaldun pasiboekin**
 - Euskara dakien gurasoari seme-alabekin euskaraz hitz egiteak beraien etorkizunerako duen garrantziaz ohartaraztea, euskararen transmisioa haurtzaindegiaren eta ikastolaren esku utzi gabe.
 - Euskara erabiltzera bideratuko dituzten egoerak eskaintzea: ikastolak familiarekin dituen harremanak euskaraz eginez, euskaraz dakiten gainontzekoekin lan taldeetan txertatuz.
 - Euskaraz ematen diren kultura eta aisialdi eskaintzen ezagutza bideratzea.

- **Familia elebidunekin**

- Euskara dakien gurasoari seme-alabekin euskaraz hitz egiteak beraien etorkizunerako duen garrantziaz ohartaraztea, euskararen transmisioa haurtzaindegiaren eta ikastolaren esku utzi gabe.
- Seme-alabek, familian zein familiatik kanpo, dakitenekin euskaraz hitz egiteak duen garrantziaz gurasoak jabetuaraztea.
- Euskaraz ez dakiten aita-amek euskara ikas dezaten motibatuzeko eta prozesua errazteko behar diren baliabideak jartzea.
- Euskaraz ematen diren kultura eta aisialdi eskaintzen ezagutza bideratzea.

- **Familia erdaldunekin**

- Kasu hauetan, gurasoek ez dutenetik ezer eskaini ezin dutenez, ikastolari dagokio ikaslearen euskararen ezagutza eta erabilera bermatzea.
- Arlo akademikoaz gain, euskararen ezagutza eta erabilera garatzeko, ikaslearen bizitza esparruak, ahalik eta gehien, ikastolaren inguruan egituratu.
- Herrian antolatzen diren euskalgintza ekintza desberdinen berri gurasoei eman eta euren seme-alabak horietara bidera ditzaten animatu. Ikastolak prozesu hori errazteko herri mailako euskalgintzako beste erakundeekin sarea indartzeko ahaleginak egin beharko ditu.

C.-Ingurunea

Ikastola bakoitzaren *inguruneak*, bere ezaugarrien arabera, ikastolak euskararen normalizazio prozesuan bideratzen dituen ahaleginak sendotu edota oztopa ditzake, ikastolak berak ezin baitu, zuzen-zuzenean behintzat, ingurune hori zehazki aldatu. Hori dela eta, ikastolako Hizkuntz Proiektuak ingurunekeo hizkuntz ezaugarriak kontuan hartu beharko ditu helburuak zein eduki eta estrategiak zehazterakoan.

Inguruarekiko harreman-esparru zabal honetan, ikastolaren egitekoa da harreman-sareen garrantziaz ohartzea eta, ahal duen neurrian, inguruarengan ekitea.

Ikastola guztiak ingurune soziolinguistiko berdintsuan kokaturik ez daudenez, bakoitzari dagokio ondorengo proposamen hauetatik eta hauetaz gain egon daitezkeenetatik zeini eman lehentasuna eta zeini ekin erabakitzea:

- ☒ **Beste ikastetxeekiko harremanak:** euskaldunak diren beste ikastola eta ikastetxeekin euskararen erabilera sustatzeko ekimen desberdinak bultzatu. Halaber, euskaldunak diren beste ikastola eta ikastetxeetako ikasleen arteko harremanak eta trukaketak bideratu.
- ☒ **Herriko beste talde eta erakundeekiko harremanak:** herrian euskararen alde lanean diharduten kultur, euskara eta aisialdi taldeekin elkarlana

bideratu. Era berean, euskal kulturaren alorrean, kiroletan, telebistan,... nabarmentzen diren eta euskararekiko jokaera eredugarria duten pertsonekin harremanetan jarri eta ikastolako jardueraren osagarri gisa erabili.

- ⊗ **Administrazioarekiko harremanak:** herri administrazioarekin, ahozko zein idatzizko harremanetan, euskararen erabilera finkatu eta sistematizatu. Era berean, herri administrazioak, euskararen normalizazio plangintza dela eta, eskaintzen dituen baliabideez jabetu eta egoki datozenean erabili zein herri administrazioak euskararen normalizazioan lagungarri eta osagarri izan daitezkeen ekimenak bidera ditzan behar diren gestioak eta eginahalak burutu.
- ⊗ **Bestelako harremanak:** ikastolak beste edozein erakunde, talde edota pertsonekin, ohiko hornitzaile nagusiekin, bisitariekin, kanpoko langileekin, behin-behineko harreman profesionalak dituztenekin, eta abarrekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izan daitezkeen bideak urratu. Hizkuntz irizpideak ezarri.

4.-Ikastola: egiturak, baldintzak eta zereginak

Hizkuntz Proiektuaren sorkuntzak, garapenak eta balorazioak, ikastolan egun dauden organo guztien inplikazioaz gain, ohiko egituraketan txertatuz, berezko antolaketa egonkor baten beharra eskatzen dute, hau da, dauden Gobernu eta Funtzionamendu organoek gainera, azken horren barne Hizkuntza Batzordea eta Hizkuntza Departamentu integratua sortzea.

4.1.-Gobernu organoei dagozkien zereginak

Gobernu Organoek (ikastolaren batzordea, ikastolaren batzar nagusia, e.a.) ikastolako ildo nagusiak finkatu eta haien gauzapena ziurtatzeko ardura dute. Beraz, Hizkuntz Proiektuarekiko honakoak lirateke zeregin nagusiak:

- Hizkuntz Proiektuaren beharra aztertu eta haren sorkuntza onetsi.
- Hizkuntz Proiektua landu eta gauzatzeko irizpideak ezarri.
- Hizkuntz Batzordearen eraketa eta haren ezaugarri nagusiak zehaztu.
- Hizkuntz Proiektua garatu ahal izateko diru baliabideak aurrekontuetan aurreikusi eta bitartekoak esleitu.
- Hizkuntz Proiektuaren urteko plangintza eta jardueren balantzea egin, baloratu eta onetsi.

4.2.-Funtzionamendu organoei dagozkienak

Zuzendaritzak gobernu organoetan hartutako erabakiak bideratu eta gauzatzeko ardura du. Beraz, Hizkuntz Proiektuarekiko honakoak lirateke haien zeregin nagusiak:

- Ikastolako ohiko barne funtzionamendua bideratzen duten erreferente nagusietan (*curriculum* proiektua, barne araudia, urteko plana, aurrekontuak...) Hizkuntz Proiektuarekiko isla ziurtatu.

- Hizkuntz proiektuaren garapenerako, ohiko antolaketaz gain, aipaturiko funtzionamendu organo berrien sorkuntzaz arduratu: kideak aukeratu, arduraduna izendatu, helburuak finkatu eta abar, ondoren proposatzen diren irizpideen haritik:

A.-Hizkuntz batzordea

Osaketa: Batzorde honetan ikastolako estamentu guztiek ordezkatura egon beharko dute Hizkuntz Proiektuak aurretik aipatutako esparru guztietan eragina izango badu. Horregatik ere, Zuzendaritza taldeko bat gutxienez Batzordekide izatea beharrezkoa litzateke. Hizkuntza Departamentuko kide baten partaidetza ere bermatzea komenigarria da.

→ Zereginak

- Ikastolako gainontzeko egitura elementuekiko loturak ordezkari desberdinen bidez ziurtatzea.
- Hizkuntz Proiektuaren plangintza orokorra egin, burutzeko bitartekoak definitu eta ezartzea.
- Hizkuntzen trataera orokorra erabakitzea:
 - Hizkuntza bakoitzaren funtzioak ikastola barruan.
 - Arlo bakoitzeko hizkuntza.
 - Hizkuntza bakoitzari eskainitako denbora.
 - Hizkuntza bakoitzari eskainitako bitartekoak. (pertsonalak eta materialak)
- Urteko hizkuntz plangintza eta dagokion memoria egitea.

B.-Hizkuntz departamentu integratua

Osaketa: Hizkuntza desberdinetako Etapako mintegi bakoitzeko arduradun bat.


→ Zereginak

- Hizkuntzen trataerarako ikuspegia adostea.
- Ardatz metodologikoak finkatzea.
- Hizkuntza desberdinetako Ziklo eta Etapa amaierako helburuak finkatzea.
- Eduki komunak identifikatu, banatu eta sekuentziatzea.
- Testu liburu eta baliabide didaktiko nagusiak aukeratzea.
- Ebaluazio irizpideak ezartzea.

Erlazioa: Hizkuntz Proiektuko Batzordean partaidetza eta beharrezko departamentuen arteko erlazioa ziurtatzea.

VII.-EGITASMOA HEZURMAMITZEKO PLANA

1.-Egitasmoaren antolaketa



2.-Egitasmoaren faseak

I. FASEA: hizkuntz proiektua definitzeko planaren diseinua egin eta onetsi.

1. **Ekintza.** Euskaraz Bizi kideak, Ikastolen Ikasmaterialgintza arduraduna eta hizkuntza arloko adituak bildu, egitasmoa aurreikusi eta lehen proposamena egin.
2. **Ekintza.** EHIEren Zuzendaritza Taldeari proposamena aurkeztu, dagozkion zehaztapenak identifikatu, eta horren ondoriozko egitasmoaren plangintza osoa (plana, ikastolentzako gidoia eta erreferentzia-eredua) egin eta onspen instituzionala jaso.

3. Ekintza. Planaren kudeatzailea izendatu eta finantziazioa gestionatu.

II. FASEA: egitasmoaren Plana eta bertako erremintak aurkeztu eta indarrean jarri.

1. **Ekintza:** Ikastolen Elkartek antolatutako “Euskararen Erabilera” izeneko jardunaldietan Hizkuntz Proiektuaren oinarriak aurkeztu.
2. **Ekintza:** Ikastolen IV. Batzarraren 2. saioan Plana aurkeztu eta xehetuz, beren hizkuntz proiektuak definitzeko gogoia luketen ikastolei lanerako deia egin.
3. **Ekintza:** EHIEren Hizkuntz Proiektua definitzeko proposamenaz kontrastea egin kanpoko aholkulariekin.
4. **Ekintza:** EHIEren Hizkuntza Proiektua (erreferentzia-eredua) – zirriborro lez- definitu eta kanpoko ebaluatzaile/adituen bidez kontsultatu.
5. **Ekintza:** Ikastolen eskaerak jaso, haiei buruzko balorazioa egin eta ondoriozko esku-hartzea 2002-03 ikasturterako planifikatu.

III. FASEA: Ikastola bakoitzari bere hizkuntz proiektua definitzen lagundu.

IV. FASEA: EHIEren hizkuntz proiektua birdefinitu.

3.-Arduren banaketa

Fase eta ekintzei lotuta ardura banaketa:

	EHIE organoak	Egitasmoaren arduraduna	EHIE hizkuntz proiektuaren Egile taldea	Kontsultoreak	Ikastolak
1. FASEA					
1. ekintza					
2. ekintza					
3. ekintza					
2. FASEA					
1./2. ekintzak					
2. ekintza					
3. ekintza					
4. ekintza					
3. FASEA					
4. FASEA					

4.-Faseen egutegi eta kronogramak

	2000	2001	2002			2002	2003
	2001	Ir-Ab	Urt-O	Mar-A	Mz-Ek	2003	
1. FASEA							
1. ekintza							
2. ekintza							
3. ekintza							
2. FASEA							
1./2. ekintzak							
2. ekintza							
3. ekintza							
4. ekintza							
3. FASEA							
4. FASEA							

5.-Egitasmoaren aurrekontua

	Giza Baliabideak	Gastu propioak	Gastu orokorrak	Gastuak Guztira	Sarrerak
1. FASEA				29.449,59.- €	
1. ekintza	16.828,34.- €	2.283,85.- €	2.524,25.- €	21.636,44.- €	
2. ekintza	3.606,07.- €	540,91.- €	540,91.- €	4.687,89.- €	
3. ekintza	2.404,05.- €	360,61.- €	360,61.- €	3.125,26.- €	
2. FASEA				30.050,61.- €	
1./2. ekintzak	1.803,04.- €	510,86.- €	270,46.- €	2.584,35.- €	
2. ekintza	3.606,07.- €	3.005,06.- €	540,91.- €	7.152,04.- €	
3. ekintza	3.606,07.- €	3.005,06.- €	540,91.- €	7.152,04.- €	
4. ekintza	9.616,19.- €	2.103,54.- €	1.442,43.- €	13.162,17.- €	
3. FASEA	51.086,03.- €	7.212,15.- €	7.662,90.- €	65.961,08.- €	
4. FASEA	6-010,12.- €	1.502,53.- €	901,52.- €	8.414,17.- €	
GUZTIRA	98.565,99.- €	20.524,56.- €	14.784,90.- €	133.875,45.- €	

VIII.-BIBLIOGRAFIA

AEK, 2001, *Plan estrategikoa*. AEK, argitaratu gabea.

AGIRREZABALA, J.J. eta beste (1997), *Euskara DBHn. Metodologiazko orientabideak*. Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.

AMONDARAIN, A. eta ZALDIBIA, E. (2002), “Euskaraz Bizi euskararen normalkuntzarako lan proposamena eta Laskorain ikastolan burututako esperientzia” in *IX-Jardunaldi pedagogikoak*, EHIE, Donostia.

ARENAS, J. eta ARENY, M. (1997), “Ikastetxeko hizkuntz proiektua”, in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 24. alea, 29-46. Donostia.

ARTIGAL, J. M. (1990), “Uso/adquisición de una lengua extranjera en el marco escolar entre los tres y los seis años” in *Comunicación, Lenguaje y Educación*, (8. orr., 127-144).

ARTIGAL, J.M. (1993), “Erabileraren garrantzia hizkuntza berri baten eskurapenean” in *Hezkuntza Eleaniztunari buruzko I. Nazioarteko Jardunaldiak*. Gaztelueta Fundazioa, Areeta-Getxo.

ASKOREN ARTEAN (2000), *Bai euskarari akordioaren plan estrategikoa, hezkuntza ez-unibertsitarioa*. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua. Donostia.

ASKOREN ARTEAN (2000), “GUNEaren adostasun txostena” in *Hik Hasi* aldizkaria. Lasarte-Oria. 44. zkia.

ASKOREN ARTEAN (1986), *Hizkuntza minorizatuen soziologia*. Tarttalo. Donostia.

BILBATUA, M. (2000), “Euskara irakasteko metodologiaren bilakaera” in *Hezkuntza Eleaniztunerako bide berriak. Ikastaria. Cuadernos de Educación*. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 11.zkia.

BRONCKART, J.P. (1985), *Las ciencias del lenguaje: ¿un desafío para la enseñanza?* UNESCO, Lausana.

BRONCKART, J.P. (1985), *Teorías del lenguaje*. Herder, Barcelona.

BRONCKART (1997), *Activité langagière, textes et discours. Pour un intéractionisme socio-discursif*. Delachaux et Niestlé, Paris.

BRUNER, J. (1986), *El habla del niño: aprendiendo a usar el lenguaje*. Paidós, Barcelona.

CASSANY, D.; LUNA, M. eta SANZ, G. (1994), “Enseñar lengua” in GRAÓ aldizkaria 1. zkia, Barcelona.

CÉSAR, C. (1987), *Psicología y Currículum*. Laia. Barcelona.

COMISIÓN EUROPEA (1996), *Libro blanco sobre la educación y la formación. Enseñar y aprender: hacia la sociedad del conocimiento*. Oficina de Publicaciones de las Comunidades Europeas. Luxemburgo.

CUMMINS, J.(1979): “Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños bilingües” in *Infancia y aprendizaje*, (1983, 21, 37-61)

CUMMINS, J. (1993), “Hezkuntza eleaniztunaren alderdi psikolinguistikoak” in *Hezkuntza Eleaniztunari buruzko I. Nazioarteko Jardunaldiak*. Gaztelueta Fundazioa, Areta-Getxo

DIJK, T.A.van (1978), *La ciencia del texto*. Paidós, Barcelona 1983

DURANTI, A. (2000), *Antropología Lingüística*. Cambridge University Press.

EHIE (1988), *Ikastolaren gestioa eta funtzionamendua*. EHIE, Donostia.

EHIE (1989), *Ikastola: izaera eta egitura*. EHIE, Donostia.

EHIE (1991), *Euskal Eskola*. EHIE, Donostia.

EHIE (1997), “Plan Pedagógico Nacionala: txosten onetsia”. In *Ikastola aldizkaria*, EHIE, Donostia.

EHIE (2001), *Ikastolen plan integrala 2002-2007*. Argitaratu gabea.

EHIE (2001), *Ikastoletako ebaluazioaren azterketa eta proposamena*. Argitaratu gabea.

ELORZA, I. eta SAENZ, M. (2000), “Urtxintxa proiektua: Haur hezkuntzarako Curriculum Proiektua” in *VII. Jardunaldi Pedagógicoak: Haur Hezkuntza*. Ikastolen Elkartea, Zarautz.

ELORZA, I. , SAENZ, M. (2001), “Irakurketa-idazketa ikastolen ikuspegitik” in *VIII. Jardunaldi Pedagógicoak. Irakurketa eta Idazketa*. EHIE, Iruñea.

ETXEBARRIA BALERDI, F. (1999), *Bilingüismo y Educación en el País del Euskara*. Erein, Donostia.

ETXEZARRETA, I. eta SUKIA J.L. (1998), *Ikastolak: hezkuntza eredu berezi eta desberdina*. EHIE/PARTAIDE (barne dokumentua), Donostia.

ETXEZARRETA, I., GARAGORRI X., OSORO I. (1984), *Elebitasuna ikastoletan: egoera eta irtenbideak*. GIE, Donostia.

EUSKALTZAINDIA, (1977), *Euskararen Liburu Zuria*. Euskaltzaindia. Bilbo.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (1992), *La normalización del uso del euskara en la educación*. Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (1999), *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Eusko Jaurlaritzza. Gasteiz.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2001), *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Udal eredu en araberako hedapena*. Eusko Jaurlaritzza. Gasteiz.

FERREIRO, E.; GOMEZ PALACIO, M. (biltzaile) (1982), *Nuevas perspectivas sobre los procesos de lectura y escritura*. Siglo XXI editores, Méjico.

FISHMAN, Joshua A. eta COOPER, R. (1968), *Bilingualism in the Barrio*.

FISHMAN, Joshua A. (1982), *Sociología del Lenguaje*. Madrid. Cátedra. *The Sociology of Language* (Newbury House) liburuen itzulpena.

FISHMAN, Joshua A. (1990), "Limitaciones de la eficacia escolar para invertir el desplazamiento lingüístico" in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua. Ponentziak eta Komunikazioak*, 189-96. Servicio central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Gasteiz.

FISHMAN, Joshua A. (1993) *Reversing Language Shift*. Clevedon. Multilingual Matters.

GARAGORRI, X. (1991), *Ikastola hezkuntz eredu gisa*. EHIE, Donostia.

GARAGORRI, X. (1997), "Plurilingüismo e interculturalismo: hacia un modo de convivencia en el País Vasco" in Seminario Internacional sobre políticas lingüísticas (265-278). Unesco-Linguapax. Bilbo.

GARAGORRI, X.; ELORZA, I.; LINDSAY, D. (1997), "ELEANITZ eleaniztasuneko proiektua, Ingelesa 4 urtetik aurrera irakastea." in *Jakingarriak* (36. zkia, 30-39). Eskoriatzako Irakasle Eskola, Eskoriatza.

GARAGORRI, X. (2000), "Eleaniztasun goiztiarrari bai, baina ez edonola, Nuevos caminos para la enseñanza plurilingüe". In *Ikastaria Cuadernos de Educación*, 11. alea, 97-117. Eusko Ikaskuntza, Donostia.

GARAGORRI, X. (2001), “Euskarari eta euskal kulturari buruzko euskal eskolaren erronkak” (a.g.) in *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*, Sabino Araba Kultur Elkargoa. Bilbo.

GARAGORRI, X. eta beste (2001), *Ikastolen Curriculumaren Euskal Dimentsioa*. 2001-11-19. EHIE, argitaratu gabea.

GOROSTIDI, J.L. (1991). *Euskaraz bizi*. EHIE. Nafarroa.

IDIAZABAL eta beste (1990), *Hizkuntzaren psikopedagogia*. Labayru Ikastegia, Bilbo.

ISASI, X. eta ERRIONDO, L. (2000). *Ulibarri Programa*. Euskara Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz.

LEKUONA, I. (1999). *Hezkuntza proiektua: lanketa prozesua ikastolen esparruan*. Doktore-tesia, Donostia.

MEZO, J. (1996), *Políticas de recuperación lingüística en Irlanda (1922-1936) y el País Vasco (1980-1992)*. Madrid. Instituto Juan March de Estudios e Investigaciones.

MIRET, I. eta RUIZ BIKANDI, U. (1997), “El proyecto lingüístico de centro”. *Textos* 13. alea, GRAÓ, Barcelona.

MINISTÈRE DE L'EDUCATION NATIONALE ET DE LA CULTURE (1992), *La maîtrise de la langue á l'école*. SAVOIR LIVRE, Paris.

MURUA URIA, I. (1996), “Lehen Hezkuntzako ikasmaterialari gainbegiratua” in *Jakin*, 93-94 zk. (44-96). Donostia.

PASCUAL, V. –koordinatzaile– (1992), *El Projecte i el Pla Anual de Normalització Lingüística d'un centre d'Educació Infantil i Primària*. Conselleria de Cultura, Educació i Ciència. Generalitat Valenciana, Valencia.

PASCUAL, V. –koordinatzaile– (1993), *Guia per a l'Anàlisi del Context del Centre*. Generalitat Valenciana, Valencia.

RUIZ BIKANDI, U. (biltzaile) (2000), *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria*. Síntesis, Madrid.

SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M^a. (1987), *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*. Gráficas Lizarra. Donostia.

SARASUA, J. (1997), *Txepetxekin solasean biziaren hizkuntzaz*. Gara. Bilbo.

SCRIVEN, M.S. (1967), “The methodology of evaluation” in *Perspectives of curriculum evaluation* (AERA Monograph Series on Curriculum Evaluation, 1). Chicago.

SELINKER, L. (1996), “Tarteko hizkera” in *Hizpide* (36, 89-109. orr.). Habe. Donostia.

SERVEI D'ENSEYAMENT DEL CATALÀ (1999), “Projecte lingüístic de centre. Aproximació teòrica”. Generalitat, Barcelona.

SETIEN, J.M^a. (2001), “El Euskera, patrimonio cultural a tutelar” (a.g.) in *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*, Sabino Araba Kultur Elkargoa. Bilbo.

SIGUÁN, M. eta beste (2000), “Lengua e inmigración”. *Textos* (23). Graó. Barcelona.

TAESCHNER, T. (1992), *Insegnare la lingua straniera con il format: un modello psicolinguistico per la scuola materna ed elementare*. Anicia, Roma.

URIARTE, K. eta beste (1985), *Gestión y funcionamiento de la ikastola (modelo orientativo)*. EHIE, Donostia.

URIAGEREKA, Juan (2001), “Perspectiva milenaria” (a.g.) in *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*, Sabino Araba Kultur Elkargoa. Bilbo.

UZEI (1987), *Glotodidaktika hiztegia*. Habe. Donostia.

VIGOTSKY (1973), *Pensamiento y language. Teoría del desarrollo cultural de las funciones psíquicas*. La Pléyade, Buenos Aires.

ZALBIDE, M. (1998). “Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas” in *Revista Internacional de Estudios Vascos* (43, 2, 355-424). Eusko Ikaskuntza, Donostia.

ZALBIDE, M. (1998), “Irakas-sistemaren hizkuntza-normalkuntza: nondik norakoaren ebaluazio-saio bat”. Argitara gabea.

ZUAZO, K. (2000), *Euskararen sendabelarrak*. Alberdania. Irun.